

# **Itsas bazterreko espazio urbanoa eraikitzen: *arkitektura, eskultura eta hiri-altzariak***

## ***Donostiako badian***

**Isusko Vivas Ziarrusta eta Amaia Lekerikabeaskoa Gaztañaga**  
**Euskal Herriko Unibertsitatea. Eskultura Saila**

Donostiako adibideak kostako espazio urbano eta itsas bazter enblematikoetara eramango gaitu, denboraren eta kulturaren eraldaketaren poderioz taxuturiko Euskal Herriko itsasertzeko hiri-paisaietan barneratuz. Toki horietan guztietan eskala handienetik txikienera hirigintzak, arkitekturak, arteak (eskultura publikoak) eta hiri-altzariak izan dute zeresan oso nabarmena. Hortaz, Kontxako badiaren ingurumarian pausatuko dugu gure begirada, aipatu elementuek agertoki paradigmatico nabarienetakoa izan duten ur-bazterrean.

**GAKO-HITZAK:** Hiri-paisaia · Donostia · Itsas bazterra · Arkitektura · Eskultura · Hiri-altzariak.

The example of San Sebastian brings us closer to one of the most emblematic coastal areas and waterfronts of the sea, penetrating into coastal urban landscapes of the Basque Country, modeled over time and by the cultural changes occurred. In all these places have shown a special effect from the most significant scales to the levels of detail, both, urban planning and architecture, art (public sculpture) and urban furniture. Therefore, we will focus our attention on the environment of the Concha Bay, the seaside where the mentioned elements have had a paradigmatic embodiment.

**KEY WORDS:** Urban landscape · San Sebastian · Waterfronts · Architecture · Sculpture · Urban furniture.

*Jasotze-data:* 2010-10-11. *Onartze-data:* 2010-11-08.

*Dena den, hiri-kalitatea, eraikitako fabrikaren eta naturaren arteko adostasuna (naturako gorabeherak inguratzen dituzten geometriak eredu izanik), itsasoko eta ibaiko urak menderatzea eta eraikin-moten kontrola izanik, XIX. mendearen amaierako Donostia da Europak duen eredu bikainetakoa<sup>1</sup>.*

## 1. Sarrera

«Maite ditut, maite; gure bazterrak, lanbroak ezkututzen dizkidanean...» kantatzen zuen aspaldi euskal poeta eta filosoforik abeslariarenak. Izan ere, egunsentiko lanbroak ezkututzen dizkigu, geruza finez, hiriaren eta itsasoaren arteko mugak, fenomeno urbanoaren limitea eta hesi naturala batik bat. Natura-kultura binomioan hiria ere balegokeela kontu eginez, itsasoarekin edo ibaiarekin talka egiten duten muga-lerroetan egituratzen da aipatu binomio kontraesankorra, urteen joan-etorriarekin guztiz gizatiar eta urbano bihurtua ur-bazterreko paisaia eraikitzen. Bertan edukiko luke eszenatoki aparta itsasoari begiratzen dion arkitekturak, gure kasuan arkitektura bera beste elementu artistiko eta estetikoekin uztartuz (monumentua, eskultura eta hiri-altzariak).

Orografiak mugak ezartzen dituen moduan itsasoak ere limite sinbolikoekin jokatzu paisaiaren egituraketa baldintzatzen du kosta partean. Hiri-paisaiaren artifiziozko estruktura honetan traza urbanoaren finkapenak garrantzi handia du urarekin mugako eta limiteko espazioak ezartzeko unean. Bien bitartean, espazio horiek guztiak funtzionalak diren neurrian (portuak, badiak, pasealekuak, behatokiak...) «gizatiartu» beharra dago eta «gizatiar bihurtze» horretan parte hartuko dute espazio bakoitzaren izaera berezituarekin erlazioa duten elementuek (merkataritzakoak, ekonomiko produktiboak eta industrialak, erlijiosoak, aisialdirako balio dutenak, kirolerako erabiltzen direnak, hiri-apaingarriak, hondartzetako zerbitzuak, monumentuak, eskulturak eta beste hainbeste).

Lurraldetasun horretan itsas ondoko hiria eratzeko kosta-lerro aproposak aurkituko ditugu lehendabizi, ikuspuntu geografikoa kontuan izanda. Segidan, espazio urbanoa eratzen doan heinean, ikusiko da nola hiriaren traza itsas bazterreraino iristen den, garai historiko klabeetan, itsasoarekin edota ibaiarekin muga anizkoitzak sortuz. Horrela konfiguraturiko paisaia urbanoek unean uneko hirigintzako teknika urbanistikoen berri emango digute; baita estilo batzuk eta besteak gustuko zituen jendartearen berri ere. Hor barneratzen da arkitekturaren eskala, baita egunero bizi ditugun espazioetako konfigurazio sinbolikoa ere: estatuen, eskultura publikoen eta hiri-altzarien eskala erabilgarriagoan, betiere lekuan lekuko kulturen, gizartearen eta bere kezken edo nahien berriemaile.

### **Donostia inguruko paisaia hiria sortu aitzin: *lurraren eta itsasoaren arteko borroka***

Santa Klara uharteak itsasotik babestuz, Urumea, Oria eta Oiartzun<sup>2</sup> ibaiek edota Añorgako erreka bustitako lurraldean hedatuko da geomorfologikoki

---

1. Autore anitz (2002): *Hiri zabalgunek Euskal Herrian*, Eusko Jaurlaritza, Vitoria-Gasteiz, 31. or.  
2. Aiako Harritik datozen zenbait errekastoren elkartzeak sortua, Pasaiaiko badien izango luke amaiera.

Donostiako hiria, batik bat hiru garapen-bideetan mugarriak osatuko dituzten hainbat mendixkaren artean: Ulia, Urgull, Aiete, Igeldo<sup>3</sup>, Oriamendi, Bidarte edo Mendizorrotz eta Zurriolako lautada itsas bazterrean, Kontxako badiarekin<sup>4</sup> batera. «Donostiako itsasertza malkartsua da, Jaizkibel, Ulia eta Mendizorrotzek osatutako mendikate txiki batek eratzen baitu. Itsas lerro garbia osatzen dute, tarteka agertzen diren kala eta badiak, Urumea ibaiaren bokaleak eta Zurriola, Kontxa eta Ondarreta hondartzek soilik eteten dutena» (Orella, 1999: 7). Topografiaren beste gorabehera batzuek hiri-sarearen barruko auzuneak osatuko dituzte, itsasoak eta ibaiak markatutako ardatz sinbolikoen jarraipenean.

Donostiako espazio urbanoa izan denaren limiteak ongi adierazten dira une oro itsasoarekin eta ibaiekin gertaturiko elkarguneetan, muga horiek agerian jarri baitituzte ondoren Donostiako hazkunde urbanoaren eta metropolitarraren ardatz bilakatu diren espazioak. Horretarako, ostera, ingurune naturalaren modelaketa geologiko eta geomorfologiko berezia funtsezkoa izan zen, gerora harkaitzek, hondartzek eta fenomeno urbano antropikoek ur-bazterretan jokatu duten rola hobeto ulertzeko. Espazio hauek ibaiek eta itsasadarrek aprobeztatu izan dituzte normalean, estuario luze eta zabalak irudikatuz; Zurriolan eta Kontxan Urumeak deskribatua edota Ondarretako estuario fosila bezalakoak<sup>5</sup>. Kostako espazio hauetan gertatu izan diren aldaketak (erosio eta sedimentazio naturalaz gain), gizakiak eragindakoak lirakeke: ibaien kanalizazioa, ditzoen eta moilen eraikuntza, portuak, etab., bertako hareatzen galera konstantea eta etengabea probokatuz.

Gizakiak baldintzaturiko aldaketa primitiboak bortitzago nozituko ziren, dirudie-nez, erromatarren etorrerarekin. Arditurriko mehatzen ustiapenak produkzio moduen eraginpean moldaturiko lurraldea taxutu zuen Donostiako eskualdean, ontziteria erromatarren kabotaje-portua ustez izandakoa, historiari nabariena Oiason<sup>6</sup> eta gaur eguneko Irun partean topatuz. Mineralaren ateratze eta garraioaren zenbait aztarna gelditu omen zaizkigu garai horretatik Euskal Herriko bazterretan, horien artean Bidasoako eskualdean eta Bizkaiko Somorrostron<sup>7</sup>. Urgulleko magalean etxola taldeak elkartzen hasi ziren elementu bateragarriekin, hala nola ur edangarria lortzeko putzuak edota lehendabiziko harresiak, Donostiak izango zuen itsas bazterreko hirigune militarren izaeraren lehen pintzelkadak

---

3. Toponimiaz solasean, itsas bazterreko Arrobi mendilerroaren kaskoa Txubillo izenaz ezagutzen zela ziurtatzen digu Txillardegik (Igeldo goian zegoen herrixka baitzen, gero aipatuko dugunez). Arrimendi ere deitu izan ohi zaió eta baita Arrobi, bertako harrobietatik ateratzen zen harria dela-eta (Donostiako zabalgunerako lehengai gisa esplotazio handia egin zuten). Plano militar batzuetan «Montefrío» izenarekin ere agertzen zaigu. Bertako dorreari «farola» deitzen zitzaion euskaraz. Oharkizun hauek egin ostean, guk Igeldo izena erabiliko dugu, gaur egun ezagunena izanik.

4. Kolkua ere deitua, guk Kontxako badia erabiliko dugu.

5. Ibai horien bokaleek posible egin dute kostaldeko zoru lauaren presentzia, eskualdearen garapena bultzatuz baina aldi berean sano kondizionatuz.

6. Agian Tarracotik Akitaniarantz zihoan galtzadaren komunikazio-zentroan, Oiartzungo harana aprobeztatuz.

7. Xehetasun hauek guztiak, hala ere, erlatibizatu beharrekoak edota, gutxienik, zientifikotasun historikoz konprobatu beharrekoak lirakekeela uste dugu (garai bateko *saltus vasconum* delakoaren garrantzia eta abar).

zirimarratuz<sup>8</sup>. Itsasgizonen egonaldiak baimentzeko eta iparrak jotzen zuenean itsasoaren erasoetatik babesteko ibaien bokaleetan sortutako koka-guneak ohikoak ziren Europako hegoaldean, topografiaren berezitasunak bilatuz. Izan ere, Gipuzkoako eta, oro har, Donostiako historia eta kultura urari lotuta egon izan dira beti, alderdi sozioantropologiko, politiko, ekonomiko eta estetikitik.

Horren ondorioa izan da itsas bazterreko eta ibaiertzeko (badia-itsasadarreko) fenomeno urbanoaren agerrera, finkapena eta garapena ere. Itsasoaren gertutasunarekin batera, «ibaiak bizi eta aberastasun iturri izan dira gizarte guztietan, eta antzina-antzinatik gizakiak haren bitartez antolatu izan ditu ekonomia eta gizarte harremanak» (Orella, 1999: 24). Horrela, ezarrita gelditzen zaizkigu gure ikerketa honetako elementu geografiko primarioak, itsas bazterreko hiriaren egituraketa urbanoan eragin dutenak, batzuetan itsasadarren eta kostaren elkarrekintzatik banatzea zail izaten den ingurune aldakorreko baldintzak azpimarratuz.

Donostian Urumearen meandro zabalek padurako lur hezeak besarkatzen zituzten eta baliteke XII. mendearen hastapenean oraindik marearen gorabeherak aldika-aldika Urgull kostaldearekin lotzen zuen hareatza irenstea. Ibaiek eta errekek nukleo urbanoak eta haien inguruan bildutako populazioak egituratu dituzte antzinatik, bai aktibitate ekonomikoaren eta bai garraioaren garapenarekin. Hiriaren aspektu morfologikoek ez ezik, itsas bazterreko espazio urbanoaren kokapeneko elementu naturalek ere aldaketa bortitzak jasan dituzte Donostian mendez mendeko bilakaera historiko geografikoan.

### **Donostia hiria: *paisaia urbanoaren hasiera itsasoaren aldamenean***

Erdi Aroko fundaziotik XV. menderaino aldikako hedapena izan zuen Donostiako hiribilduak (harresi artean), ondorengo fasean hazkundera gehiago nabaritzen XIX. menderaino. Hortik aurrera industrializazioa ere nozitu zen eta aspektu urbanistiko, estetiko zein sinbolikoei dagokienez hiri-zabalguneen ereduak XX. mendearen erdiraino. Gizaldi horren bukaeran, beraz, periferiaren metropoli bihurtzea atzemango dugu eta eskualde funtzionalaren kontzeptua, hirigintzako egitamu orokorrak zein lurraldearen antolaketako plangintza partzialak bitarteko, gure egunotan dakusagun Donostia-Pasaia itsas bazterreko metropoli-hiria egituratu arte. Alabaina, XVI. menderaino ez ziren gogortu defentsarako harresiak, Gaztela eta Frantziaren arteko norgehiagokan altxor preziatua izaki. Urgulleko fortifikazio militarrek Antiguako herrixka primitiboaren zeresana gutxitu zuen harresi barneko hiriaren mesedetan, bostehun urte baino gehiagoz Donostiako plaza militarra izan zena alegia. Horrela, itsas bazterrean garatu zen arrantzale-herriak harriz inguratutako hiri berria izan zuen ondoan, olatuak dagoeneko hormaren sustraietako harkaitz azpian zokoratuz.

---

8. Ziurtasun historiko askorik gabe, Tolomeok markaturiko antzinako Easo Donostia izan zitekeela esaten zuten batzuek. Beste batzuek Colippo-ri egiten diote erreferentzia, Coimbra eta Lisboa arteko Portugalgo San Sebastián hiriarekin nahastuz, hau ere Atlantikoaren itsas bazterrean. Baten batzuek Marco Aurelio Basiano enperadoreak fundatu zuela defendatu izan dute, Saltus Bassiani izenarekin, azkenean Santus Sebastianus bilakatuz. Antso Abarkaren garaian Gipuzkoa osoarekin batera Nafarroako Erresumara agregatua izan zela uste da.

Hortik aurrera, jadanik Errenazimentuko moldeetara egokituriko harresiek itsasoaren eta Erdi Aroko hiriaren bitartekari funtzioa beteko zuten XIX. mendearen azken hereneraino. Urgulleko gazteluaren eta hiriaren artean harrizko paretak ziren bitartekari, mendiaren eta itsasoaren laguntzaz kanpoko erasoetatik erabat salbu geldituko zen Donostia hiriaren irudi historikoaren trazak itsas bazterreko paisaia inksribatuz. Iberiar Penintsulako eta Frantziako hego-ekialdeko hiri-bastioietan agertu zen errektangulu erako oinplano erregularra Donostian eta Hondarribian erabilia izan zen lehenago, gehiago aurretiaz definituriko molde arrazional baten eraginez baldintza orografiko edo topografikoetara egokitzeko baina. Hirigintzaren aplikagarritasun arrazional hori Erdi Aroko pentsaera teokratiko eta espiritualean datza neurri handi batean, zeinak mundu osoaren harmonia eta geometrikotasuna aldarrikatzen zituen. XVII. mendean pentagono erako bastioiak gaurdaino heldu zaigun mugako hiri fortifikatuaren plano ezaguna deskribatu zuen.

1700. urtean idatzitako liburuxka batek XVII. mendearen amaierako bidaiari ingeles baten deskribapena eskaintzen du, harearizko mendi baten oinetan ezkutaturiko hiri karratua marraztuz, ekialdetik itsasoak kasik ukitzen zuen harresi artean gordea, itsasotik sartzera ikusezin bihurtuz badiara ailegatu arte. Pasarte bereberetan hiriak zituen bi ateak ageri zaizkigu, portuko moilakoa eta Pasaiakoa deitzen zutena, zeinetatik Pasaiara zeraman errepidea iragaten zen. Ate horren monumentaltasuna erakusten digu bidaiariak, aurrealdean errezelarekin tratatutako erdi-bastioi parek zeukalarik; biak ere nahiko zakarrak, proportziorik gabeak eta kontserbazio-egoera txarrean. Horrez gain, itsasoko bizitzarekin ez eze, itsas bazterreko morfologia urbanoarekin harreman nabaria zuen eguneroko errutina harresiko ateen itxiera izaten zen ilunabarrean, egunsentiraino hirirako sarrera galaraziz. Beraz, etxebizitza gutxi batzuen eraikuntza baimendu zen harresietatik kanpo, bai portuan bai Santa Katalina aldean, batez ere itsasotik zetozenentzat eta Urumeako ontzietan lan egiten zutenentzat. Bilboko Kasko Zaharrean Zazpi Kaleek espazio urbanoaren erdigunerik adierazgarriena irudikatzen bazuten, Donostian ere zazpi kale garrantzitsuenen hasieran (lau paralelok eta hiru perpendikularrek osatzen zuten sarea) beste hainbeste sarbide zeuzkan kontraharresia zegoen, gaur egun dakusagun Kanpanario kaleko antzinako arkuaren arrastoarekin.

Bitartean, itsasari espazioa irabaztea betidanik izan da donostiarrentzat lehen mailako obsesioa, aukera bakarra ia alderdi guztietatik ureztatua zegoen hiria haziko bazen. 1813ko sutearen ondorengo berreraikuntza egin eta XIX. mendearen erdialdea iragan ahala Urumearen ibai-ahoari begiratu zioten, ezkerraldean zain eskuinaldean zabalgunek behatuz hurrenez hurren. Eraikitze bestelako baldintza gainjarrietatik libre, nahi bezala modelatu zitzaizketen hareatza handiak zeuzkaten begien aitzinean, kale zabal eta zuzenak, paralelo zein perpendikularrak ur-bazterreko lur-sailetan txertatzeko. Harresien birrintzearekin batera zabalguneen arora hurbildu zen bat-batean Donostia eta segituan piztu ziren komertzioaren, industriaren eta zerbitzu-hiriaren arteko eztabaida sutuak. Beti itsasoko nahiz ibaiko urak errekurtsu legez kontsideratuz, Kontxako badiaren Bilborekin eta Baionarekin lehiatuko zen portu handia ezartzea ere pentsatu zuten. Horrela, portuko instalakuntzek itsas bazterreko lehenengo lerroak okupatu zituzten, trenbidea ere moiletaraino eramanez. Honakoak ur-bazterreko hiri

industrialaren ereduari jarraituko zion ziur asko, itsasoaren presentziak industriarekin eta merkataritzarekin erlazionaturiko puntu estrategikoa baldintzatuz.

Alabaina, itsasoaren presentziak bestelako baliabide ekonomikoak ere posible egiten zituen; gortearen udako bizitokia izanik, bertara erakartzen baitzuen udatiar multzo handia, uraren zein hondartzaren kalitateak eta paisaiaren berariazko edertasunak bultzatuta. Donostiak bazuen, beraz, garaian egituratzen zihoan turismoaren fenomenoaren pentzuan garatzeko baliorik. Aurrekontu gabeziak, hiritarren parte baten eragozpenak eta ezegonkortasun politikoak portuaren zabal-kuntza Kontxako badian oztopatu zuten, horrekin batera beharbada Donostiako historia urbano garaikideari ongiatorria eginez. Industria hiriko periferietara alden-du zen oso bigarren plano batean geldituz, adibidez, Bilborekin konparatuta; zikintasunik eta usain txarrik gabeko paisaia urbana bisitariei eta, oro har, udatiarrei eskainiz.

Era berean, XIX. mendearen azken herenean heldutako Kortazarren zabal-gunean eta, batez ere, itsas bazterreko lehenengo lerroen balioztapenean zein erabilera urbanoan islatu ziren desberdintasun eta kontrakotasunik handienak eta bitxienak. Horiek inskribatzen baitute, hein batean bederen, ur-bazterreko egitura-keta urbano esanguratsuen estetika eta fenomeno urbanoaren adierazgarri sinbolikoak ere badira. Monumentaltasun ugariagoaren edo urriagoaren erabilerak egitura urbanoen funtzioak agerian utziko ditu. Dena den, kostaldetik zenbat eta hurbilago egon, are eta sinbolikoagoak izango dira elementu monumental arki-tektonikoak, eskultorikoak eta hiri-altzari esanguratsuak, zenbaitetan Donostiaren izaera estetikoaren adierazgarri bikainenak suertatuz.

XX. mendearen lehenengo hamarkada hasita, Urumearen ezkeraldeko zabal-guneak ere aurrera zihoazen, eta bigarren hamarraldian Antiguakoa jarri zen mar-txan. Bien bitartean, turismoaren beharrak eraginda baina baita beronen etekinei esker ere, Pariseko arkitekturari begirada jarrita izanik, Donostiak behar zituen eraikin ponposoak sortu ziren bai itsas bazterrean baita ibaiertzetan ere: horien artean Maria Kristina hotela, Victoria Eugenia antzokia (udal-antzokia —«Printzi-pala»— 1843an inauguratu zen), La Perla bainuetxea, kirol-kluben egoitzak, hipodromoa, Kursaalako kasino handia edota Zurriolako hondartza bera (agian Donostiak itsas partean izan duen ingeniari-obra handiena)<sup>9</sup>.

Ikusten denez, garai bateko burgesiaren gustu estetikora moldatutako eraikuntzak Donostiako espazio historiko guztia batu zuen, modu apaingarrian ulerturiko edertasuna baitzuten helburu, monumentaltasuna eta aspektu sinbo-likoak une oro gailenduz. Eraikuntzako material modernoak (hormigoi armatua kasurako) ezkutatzea eta disimulatzea zilegi jotzen zuten kanpoaldera erakutsi

---

9. Gure egunetan ohi den legez, XX. mendearen hasieran ere zenbait interes ekonomikoren araberako erakundeek hartu zuten bere gain itsas bazterreko Donostia turistikoari forma emateko ardura. Ardura haietatik sortutako hiriak modelo bitxi eta berezi batzuk eskaini ditu, pentsamendu eta egikera konkretu batzuen arabekoak. XXI. mendean, hirigintzaren berrikusketa eta planteamendu berriek administrazioaren eskua ez ezik, plangintza estrategikoen eta unean uneko proiektu enblematikoen usaia ere badute. Ezagunak dira sarritan diru publiko-privatuz elikatzen diren erakundeak hirigintzaren modelo eta hiri-ikuskera postmoderno jakin batzuetara moldatuz, Bilbon ur-bazterren balioztapenerako egitasmo programatikoekin gertatzen den gisan. Ekimen politiko-ekonomikoek finkatzen dituzte, hortaz, berreskurapenerako premiak eta hiri-espazioen balioak.

beharreko estetikaren mesedetan. Testuinguru horretan burdina eta altzairua deserosoak ziren, beste ingurune batzuetako industria-hiriak gogorarazten baitzituzten.

**Itsas bazterreko espazio urbano historikoak:**  
***Kontxako badiaren inguruko hiri-egituraketa sinbolikoa***

Itsasoari irabazitako lurzorua «kolonizatze» ideiarekin, 1850ean Irunetik Andoainerako errepidea eraiki zen Kontxatik Antiguarako bikoizketarekin. Orduan finkatu zen jadanik Kontxako pasealekua, gero urbanoa izango zen aldearen eta hondartzaren arteko borneko trazu gisa, alde batetik itsasoak eta bestetik kostako mendilerroek mugatuta. Urte gutxitan bata bestearen atzetik garatutako zabaltze-prozesuek uraren eta hiriaren arteko loturei arreta bizia eskaini zieten, Donostiako garapen urbanorik handiena eta esanguratsuena gauzatu. Hirigintzarekin zerikusia zeukaten udaleko teknikariek (arkitekto eta ingeniariak) zehaztasun handiz behatzen zituzten proposatzen ziren egitasmoak, batez ere Kontxa inguruko partean garatzeko zirenak, hiriak izan beharko zuen «aurpegi estetiko» inolaz ere ez izorratzeko. Udalbatzak ere irizpide estetikoak aditasunez eta zorrotasunez betearazten zituen, merkataritza-hiriaz eta hiri turistikoaz piztu zen diskusioaz harago.

Donostiako itsas bazterra konfiguratzeko duten mendi-tontor edo muino bakoitzak ere funtzio sinboliko konkretu batzuk bete izan ditu hiri-paisaiaren eraiketa historiko eta estetikoan. Alabaina, beti funtzionatu izan dute elementu solte bezala, fenomeno urbano adierazkorra bateratuko zuten ideia edo proiektu benetan komunak usaindu gabe (Igeldon funikularra, jolas-parkea eta etxebizitza garestiak, Urgullen militarren auri historikoak eta Santa Klara uhartean urbanizazioak, lora-tegi-parkeak eta portuaren hazkundera, besteak beste). Izan ere, horrela ikusita Urgulleko paisaia kulturalak Donostiaren historia zaharrarekin lotzen gaitu, antzinako aroekin; Igeldoko azpiegiturek aisialdirako aurrerapen teknologikoekin, eta Santa Klarak beti jaso ditu Donostiako hiri-ideiaren kontraesanak, komertzioaren eta turismoaren aldeko eztabaidetan; bai Kontxan, Grosen edo Antiguan eta Uru-meako paduretan jaio ziren kontzepzio desberdinak kostako badia inguratzen duten hiru tontor hauetan nola edo hala errepikatuz. Azkenean, zabalgunearen aferarekin ziurtatuko zen bezala, hauek ere udatiarrentzako, aisialdirako eta turismoarentzako espazioak egituratu zituzten, eztabaida horietan garaile nortzuk izan ziren argituz.

Uliako kasuan, adibidez, duela zortzi mende itsasoa eta baleak ikustatzeko bertan existitzen zen talaia-behatokia berreskuratzeko proiektua 1906an hasi zuen udalak, orduan zeuden harkaitz multzoen gainean. Hiriko memoriaren gogorpenari erakargarritasun turistikoa gehituko zitzaizkion, toki abandonatu haren abantailak etorkizunerako hiriaren bilakaeran ezinbestekoak ikusten zituen udalak, batik bat ustiapen turistikoari begira, itsas bazterren hurbiltasuna aprobetxatuta. Ekimen horiek XX. mendearen erdialderaino jarraitu zuten, 1945-1950. urteen bitartean Uli mendiko espazioak egokitzeko intentzioarekin, Donostiako kostako estetika urbanoaren mesedetan.

Urgullek ere izaera berritua hartuko zuen 1880ko hamarkadan proposatutako txaletak, kasinoa eta hotelak egin izan balira, Biarritzeko, Donibaneko eta kostaldean uda-pasa zebiltzanentzat eraikitako beste herrietako ereduak kopiatuz. Lorategiz hornitutako landa-etxeek beteko zuten urbanizazioa, mendiaren probetxurako 1912an berriz ere antzeko proiektua berpiztuz: denetara, pasealekuak, ibilbide partikularrak, kasinoa, hotelak, jolas-parkea eta etxeak izango zituzten. Hurrengo hamarraldian lehenengo funikularra eta gero airezko teleferikoa edota igogailua ezartzeko proiektuak aztertu ziren. Bertara heltzeko zeuden zailtasunak ikusita sistema mekanikoren bat edo beste ezartzea bultzatu nahi zen, zuhaitz artean ahal beste ezkututuz parajearen edertasuna ez itxuraldatzeko. Teleferikoaren hasiera portuko aldean jartzea hobetsi zuten (Kontxatik, Kasinotik eta Klub Nautikotik gertu baitzegoen<sup>10</sup>), bertatik hasi eta Urgulleko gazteluraino inolako oztoporik gabe heltzeko, erdibideko dorretxorik gabe. Egitasmo hauetatik guztietatik aurrera eraman zuten bakarra Urgull mendia inguratzen duen Paseo Berria izan zen XX. mendearen hasieran, eta hemen ere mende horren akabuan Oteizaren eskultura jarri zuten itsaso zabalari begira, geroago komentatzea tokatuko zaigun bezala<sup>11</sup>. Urgull mendia, azkenean udalak erosita, parke publiko bilakatu zen, kostako harkaitzetatik mendia inguratzen duen Paseo Berria 1916an inauguratu zen, itsasoari bete-betean aurpegia ematen dion pasabidea, bi alderdi urbanizatu elkartzen dituen lerro uhintsua alegia (Kontxako badia eta Gros auzoa).

Igeldon ere, azkenean gauzatuko zen aisialdirako jolas-parkearen ideiatik oso urruti, Karpard erakundeak bertako padurak erabili ahal izateko eskaria luzatu zion udalari XX. mendearen lehen hamarkadan, ustez aktibitate komertzial eta produktibo industrialei bultzada emateko. Udalaren jokaera hondartzaren eta itsas bazterreko aurreneko lerroko hiri-paisaiaren defentsan ateratzea izan zen, besteetan agerturiko irizpide estetiko eta argudio urbanistiko berberekin, batez ere hondartzaren sekulako gorazarrea egin ostean.

Itsasoarekin muga egiten, Ondarretako hondartzaren gainean XII. mendetik ezagutzen zen Hieldoko herrixka zegoen. Itsasoari begira zegoen talaian XVIII. mendearen amaieran itsasargia eraiki zuen Donostiako Kontsulatuak<sup>12</sup>. Itsas bazterreko gida-elementu benetan sinbolikoa, behelainoak oso maiz estalita funtzionaltasuna galtzen zuenez, bertan behera laga zuten, nahiz eta garaiko onenetakoa izan<sup>13</sup>. Lehen Karlistaldian Britainia Handiko Errege Itsas Armadak

---

10. Pasealeku Berria, Urgulleko mendi-magala eta San Telmoko inguruak kokapen posibletzat hartu zituzten, lehenengo biak laster ezeztatuz eguraldiaren eraginagatik eta itsasoaren hurbiltasunagatik, betez ere itsaso zakarra zegoenean erabat arriskutsua.

11. Juan Alday arkitektoak eta Luis Balanzat ingeniariak 1915-16 urteen artean egina, 1998an berrikuntza nabariak izan zituen itsas bazterreko espazio emblematiko honek, kostako murrua konponduz eta hiri-altzariak ezarritz, aipatu Oteizaren eskulturaz gain.

12. Kai bat eraikitzea eta Igeldoko itsas ahoa ixtea ere proposatu zuten. Azkenean, itsasargia baino ez zuten egingo. Antzina Urgull mendiko gazteluan sua edo argiontzi bat ipinita zeukaten porturako bidean itsasargi funtzioa eskainiz. Itsasoan nabigatzeko argi hori San Pedroko Kofradiak zuen jarria, 1491n sortua berau eta maisuen zein ontzi-jabeen zerbitzuan zegoena. Lehenagotik arrantzale zein marinelak Santa Katalinako Itsasgizonen Kofradian zeuden bilduak, XII. mendekoa berau. Itsaso bidezko joan-etorrietan zaintzea zen haren eginkizuna, kaien mantenu eta konponketaz ere arduratu beharra baitzuen.

13. Itsasargi berria Pironcely ingeniariak diseinatuta, XIX. mendearen erdialdean jarri zuten mendiaren saihetsean.



itsasargiaren azpian gotorleku bat eraiki zuen: «Fuerte de la Farola», artilleria-piezak babesteko. XX. mendearen hasieran meteorologia-behatokiarekin batera jolas-parkea ezarri zuten, eta itsasargi zaharra eraberritu eta behatoki edo begiratori bilakatuta, mendiaren metamorfosiari hasiera eman zitzaion, udatiarrentzat eta turismoarentzat pentsatua<sup>14</sup>. «Monte Igueldo» sozietate anonimoak zeuzkan lurretan atzerritarrak erakartzeko intentzioz, faro zaharrari laugarren solairua gehitu zioten apaingarri gisa, leiho handiak irekiz, sabaiko terraza eta ertzetako dorre txikiagoekin Erdi Aroko gaztelu baten antzean, inguruan jatetxe eta bestelako baliabideekin, bertatik ikus zitekeen paisaia miresgarriaren erdigunean.

Beste tokietan bezala, bertaratzeko funikularra inauguratu zen 1912an Huici ingeniariak proiektatua. Urte gutxiren buruan, uda-pasa etorritako aberatsek txaletak eta jauretxeak egin zituzten mendi-magalean (haietariko asko desagertu eta apartamentuak eraiki dituzte), garaiko estilo arkitektonikoen adierazle: klasizismoa, modernismoa, eklektizismoa, revivalismoa («neorromanikoak» eta «neogotikoak»), Errenazimentukoen tankerakoak eta baita «neoiñgeles», «neobarroko» eta «neoeuskaldunak» ere.

Ildo horretan eta itsas bazterreko lur laueta, Alderdi Ederreko partean militarrek zeukaten maniobra-zelaia lorategi bihurtzea edota itsas bazterrean kokatu nahi zen aduanaren ordezkasinoa eraikitzea izan ziren, beharbada, kontzepzioaldaketaren sinbolik behinenak, ur-bazterreko paisaia urbanoetan eragin indartsua islatuz. P. Ugartemendia eta S. Pérez arkitektoak Donostiara etorri izanak arkitektura neoklasikoaren presentzia areagotu zuen hiriko zabalgunean. Hala ere, M<sup>a</sup> Carmen Rodríguez Sorondok gogoratzen duen bezala, funtzioaren eta formaren arteko erlazioaz arduratzen ziren profesional haien tendentziak kutsu ikasidun alternatiba gisa geldituko ziren, eta XIX. mendean arkitektura klasizistaren nolabaiteko iraupena baldintzatu. Horrela, konposizio klasizistak eraikinen diseinuak baldintzatu zituen baina eklektizismoaren apaingarritasunak eta eraikuntzako materialen aberastasunak eraikin publikoetan zeukaten zeresan nabariarekin<sup>15</sup>. Hogeita bost urtetan Donostian buruturiko arkitektura gehienak eklektizismo frantsesa izan zuen eredu, zeren «Beaux Arts» edo «Bigarren Inperioko» estiloak burgesiari aukera ona eman baitzion ongizatearen eta irudi kosmopolitaren errepresentaziorako. Pariseko eragina oso nabaria izan zen Donostian, ez bakarrik eraikuntza arkitektonikoan, baizik eta beste elementu urbanoetan ere.

Hala ere, 1887an inauguratutako Kursaal kasino handia izan zen itsas bazterreko arkitekturarik enblematikoenetakoa. Irabazien portzentaje bat hiria apaintzeko eta elementu urbanoz hornitzeko erabili beharko zuen udalak (modernotasuna erakutsi nahirik, 1882an argiztapen publiko elektrikoa jarri zuen lehenengoetariko hiria izan zen Donostia), eta horiekin gauzatuko ziren itsas bazterreko zenbait obra ere (Kontxako paseoa eta erlaintza —1910— edota Paseo Berria). Kontxako hondartza hiriko punturik sinbolikoena izan zen hortik aurrera eta itsas ondoko hirigintzaren ezaugarri bikainena. Bitartean, errege-erreginen

---

14. Gaur egun Igeldo mendira igotzea kasik denboran atzera buelta egitearen tankerako zerbait izan daiteke, mantentzen duen usain estetiko harrigarria dela-eta.

15. Berrezarpenaren (Restaurazioaren) garaian (1876-1902) Donostian oso argi zeukaten jadanik aisialdirako eta turismorako aktibitateak ezin zituztela ahaztu, monarkiak aukeratua baitzuen udako bizileku gisa.

sendiak euren udarako jauregia ere eraiki zuen itsas bazterrean 1893an: Miramar Jauregia hain zuzen. Kontxako badiari muturra erakusten dion parajeon (Loreto azpia), Antiguarekin eta Ondarretako hondartzarekin limitea zedarrizten duten harkaitzen gainean.



**1. irudia. Kontxako badiako hiri-altzari adierazgarri eta sinbolikoak. Donostia.**

Badiako erdigunean ia, Miramar Jauregiak Erdi Aroko «neoestiloak» hartu zituen eredutzat<sup>16</sup>, bertatik iragaten den errepidearen eragina gutxitzeko tunel faltsu bat eraikiz hondartzaren ondo-ondoan, etorkizunerako Kontxa eta Ondarretako hondartzaren muga argi eta garbi markatuko zuena, badiaren bi alderdiak bereiziz espazio urbanoaren estrukturak berak aurkezten dituen antolaketa diferente eta desberdintasun estetikoekin. Izan ere, Iberiar Penintsulako lehen mailako hondartza izanda, zerbitzu ugari ezarri edo hobetu beharko zituzten; horien artean uren ekarrera, zoladura eta argiztapena. Hiri-espazio zinez monumentalak beharko zituen, beraz, eraikin paradigmaticoez gain izaera bereziko hiri-altzariak. Horien lekukorik apartekoenek itsas bazterreko Donostia hiriaren bereizgarri den irudirik estetikoena eskaintzen digute. 1913an Vienako espirituan murgildutako hirigintzaren eredugarri Alday arkitektoak diseinaturiko Kontxako barandaz gain, erlojuak, barometroak eta lanpara batzuk ere itsas bazterreko burges-hiriaren irudia definitzen diguten hiri-altzari sinboliko eta monumentalenetarikoak lirateke.

16. Selden Wornum arkitekto britainiarraren proiektuaren arabera, Kontxako badiako kokagune singularrean finkatutako jauregiak Donostiako itsas bazterreko paisaia osatzen du. Sarrerako dorreak konposizio arkitektonikoa egituratzen du, eta topografiari egokitzuz alkazar erako ikuspegi erromantikoa suposatzen du. Ingurune guztiari darion izaera pintoreskoaren ildoan, aldameneko parkea ere tokian tokiko baldintza geomorfologikoetara egokitzen da altura handiko zuhaitziarekin.

Lurzoruaren kotak salbatzeaz gain «La Perla del Océano» bainuetxeak horizontaltasun eta simetria nabarmena markatzen du bai arkitekturaren konposizioan baita itsas bazterreko paisaiaren egituraketan ere, Kontxako hegalarren arkupeekin nolabaiteko jarraitutasuna bilatuz. Izan ere, 1920ko hamarkadan bainularien egurrezko kabinak hondartzatik desagertu ziren hegalarren azpiko kabina lurperatuek ordezkaturat<sup>17</sup>. Erabaki horrek espazioa liberatu zuen hondartzan kondizio higienikoak hobetuz eta ohikoak ziren ikuspegi estetikoak eraldatuz. XX. mendearen hasierarekin partikular baten jabeagoa zen egurrezko barrakoa kendu eta Kontxari behar zuen duintasuna emango zion bainuetxe berria eraiki nahi izan zuten, haren izena eta erakusten zuen egoera txarra ez baitzetozen bat, ez alderdi estetikitik ezta probetxagarritasunetik ere. Bestalde, bai «La Perla» bainuetxe zaharberrituak bai haren aldameneko eraikin txikiagoek, hondartzara jaisteko aldapa eta eskailerak barne, itsas bazterrean eraikitako hiriaren lehen lerroko etheen perspektiba ez oztopatzea zuten helburu, pasealekuan eta hondartzan ahalik eta integratuen gelditzeko nahiarekin.

Esan bezala, bai monumentu eskultorikoetan, hiri-altzari esanguratsuetan eta arkitektura enblematikoetan estilo klasizista eta eklektikoak hein batean nagusituz, 1882 eta 1887. urteen artean eraikitako kasino monumentalak hirigune zaharra eta portua lotzen ditu zabalgunearekin, itsas bazterreko espazio urbanorik baliotsuenetan, Alderdi Ederreko parkeak Kontxako pasealekuarekin topo egiten duen lekuan. Kokalekuak berak, lorategiaren paraleloan eraikinak garatzen duen geometria horizontalarekin batera, itsas bazterreko lorategiek perfileturiko parajeen, gonbidapen erakargarria suposatzen du jada. Eklektizismoaren, Errenazimentuko estiloen eta modernismoaren arteko fantasiako nahasketa arina erakutsiz, korintoar ordenadun kolomek kapitelak, basak eta moldurak urre kolorekoak izango dituzte XVI. mendean Italian eta, batik bat, Florentziako monumentuetan erabiltzen ziren prozeduren oroigarri legez, garaiko «neoestiloetan» euskarriz. Lan eskultorikoak aipagarriak dira kapiteletan eta mentsuletan, Donostiako eklektizismoak bereak egin zituen azulejoak friso, tinpano eta arkiboltetan ugariak izanik. Hiriak toki horretan bereganatutako militarren maniobra zona edertu nahian, XIX. mendeko 80ko hamarkadan sortutako «Casino de San Sebastián» elkarte anonimoak proposatu eta kudeatuko zituen obrak Espainiako estatuko arkitektoen artean konkurtsoa antolatuz. «Aurrera» lemapean, Adolfo Morales eta Luis Aladrén-ek aurkeztu zuten proiektu garailea.

Urbano bihurturiko itsas paisaiari atxikia, udatiar kulturaren adierazle izan behar zuten sinbolo arkitektonikoak gailendu ziren turismoarentzako hirian. Hala ere, 1866tik existitzen zen Donostiako itsas bazterrean kasinoa altxatzeko ideia, baina kasu horretan ez aipatu dugun kokalekuan, baizik eta Urumea ibaiak itsasoarekin bat egiten duen puntuan, Bretxako merkatu ospetsua agertuko zen tokiaren ondoan. Ibaiertzeko pasealekuak eta Zurriolako hondartza izango zituen aurrez aurre, Uli mendirainoko ikuskizun oparoarekin. Gainera, hiri historikoko «etxe zahar eta itsusiak» estaliko zituen, 1813ko sutearen aurrekoak, eta merkaturia bera ere, «hiriko aurpegirik zakarrena» oztopatuz.

---

17. XIX. mendean kabina edo etxetxo horien jabeek gurpilen bidez mugitzen zituzten itsas bazterreraino, bainu-hartzaileen erosotasunerako.

Guri dagokigunaren aldetik, Donostiako ur-bazterreko arkitektura enblematikoak beti izan dira hiri-espazioen egituraketaren lagungarri. Oraingo honetan ere Alderdi Ederreko itsas bazterreko parajeen landareentzako galeria edo negutegia, akuarioa, kioskoa, aire libreko antzokia, udarako jostagarriak, belodromoa eta zenbait iturri eraiki nahi izan zituzten. 1899an Luis Armando Lebreton-ek kasinoaren aurrean ezartzeko bi erliebe eta Alderdi Ederreko ardatzarekin lotuko zuen iturri monumentala planteatu zituen, kale nagusietako eta Askatasuna etorbideko perspektibak ongi zainduz. Aurrekontu bat ere egina zeukaten, Pariseko «Le Val d'Osre» etxeari enkargaturiko iturriarekin (burdinurtuzkoa eta brontzeatua). Azkenean, hiri-altzari eta «mikroarkitekturako» elementu horietako asko galdu ziren behin betiko proiektuan. Frantziako Pierre Ducasse lorazainak burutu zituen bertako lanak (Miramar jauregiko lorategia ere berak prestatu zuen, garaiko burgesiak eta aristokraziak hiriak parkez eta lorategiz hornitzeari eskaintzen zion garrantziaren seinale). Monsieur Duclos-ek ere argi-iturria planteatu zuen, arrakastarik batere izango ez zuena. 1886an Kontxako sarreran pilastra baten gainean lau esfera zituen erlojua jarri zen, aldi berean Madril, Paris, Londres eta Donostiako ordutegia ematen zuena. Benetan izan zezaketen funtzionaltasunaz gain, elementu hauek izan dira, azken finean, Kontxako ikuspegi monumentalaren eraiketan lagundu duten hiri-altzari sinbolikoak.



**2. irudia. Maria Zubia zenaren omenezko monumentua. Donostia.**

Alderdi Eder parkearen konfigurazioak, oster, ez du iraun bere horretan gureganaino. Ducass-ek jarri nahi zuen landaretzak itsasoko haizeak eta neguko ekaitzak jasango ez zituela-eta, mendixka batekin babestu zuen lorategia; «Monte Ruso» deiturikoa. Arbolaz beteriko basotxo oparoa, kobazuloak eta itsasorako ikustokia zeuzkan. 1813ko sutearen ehungarren urtemuga gogoratzeko asmoz, monumentu bat kokatu nahi zuen udalak bertan. Irekitako konkurtsoan Javier Lu-

que eta Julián Apraiz arkitektoak izan ziren garaile, Pique eskultorea lagun zutela, «Zubieta» deituriko proposamenarekin. Carrarako marmolez, hiru pasarte historiko ezagun orotarazteko basamentu triangeluarra pentsatu zuten. Horrez gain, lau txirikorda zeuzkan hiriko sutearen datarekin, goiko partean, urrezaturiko bronzetzeko koadriga. Monumentuak ez zuen inortxo ere asebate eta bertatik kentzea erabaki zuten, itsas bazterreko espazio urbano esanguratsuetako sinbolo gisa berriro ere arkitekturak eta hiri-altzari bereziak geldituz, ur-bazterreko eraldaketaren lekuko.

Donostiako hiriguneko eta, batez ere, zabalgunek berriko toki estrategikoetan badaude pertsonaia xebleen omenezko zenbait monumentu, gehientzuenak euskarri arkitektonikoen gainean kokatutako estatua klasikoak izanik. Horietako batzuk itsas bazterrean eta ibaiertzean aurkituko ditugu, garaiko estilo arkitektoniko eta eskultorikoen eredu. Halakoa da Mari Zubiarena ere, baina kasu honetan kolektibitatearen identifikagarritasuna agian sendoagoa eta indartsuagoa da, omendua pertsonaia ahaltsu bat izan ordez herritar xehea zelako eta haren balentriak itsasoko jendearen artean entzute handikoak eta txit estimatuak zirelako. Portuko espazio urbano historiko horretako elementurik sinbolikoena eta itsasoari loturiko kolektibitatearen ezaugarri, beraz, bertakoek Mariren monumentua deiturikoan izango da, lehena 1867an altxatua<sup>18</sup>. Udalak eta herritarrek ordainduta, harrizko kubo bat eraiki zuten gainean kapera zuela, eta omenduaren silueta irudikaturik zeukan plaka. 1900. urte inguruan inauguratua, Antonio Arzac-en bertsoak ageri dira grabatuak bere oinetan.

Bitartean, hastapenean zeuzkaten premisak gehiegi eraldatu gabe aurrera segitu zuen Kortazarren zabalgunearen eraikuntzak XX. mendeko lehen urteetan. Antzinako Santa Katalina auzoan, ibaiaz bestaldean, Groseko zabalgunea hasi zen planteatzen Urumeako kanalizazioaren ostean, Zurriola ere hartuz. Han ere tailerrak eta biltegiak zeuden finkatuta XIX. mendearen amaieratik, Uliá mendiaren azpiko langileen etxebizitza gutxi batzuekin batera. Ondoren ikastetxeak, hiltegia, ospitalea, zezen-plaza, komentu erlijiosoak eta tranbiaren geltokiak agertuko dira. Alabaina, familia bakarreko txalet batzuk ere baziren itsas bazterrean, Inazio Deunaren elizaren inguruan. Etxe horietako asko desagertu ziren Zurriolako zabalgunearen obrak hastarekin batera. Auzunea klase apalari begira proposatu bazen ere, klase ertainek eta dirudunek hartu zuten itsasoko lehen lerroak aprobeztatuz. Horrela, urbanizazio-proiektua baino gehiago itsasoari irabazitako lur guztien ustiapen osorako programa bilakatu zuen Sociedad Inmobiliaria del Kursaal erakundeak. Era berean, lorategi-hiriko arauak aplikatu zituen udalak Kursaalera etorbidearen eta itsasoaren artean eraikitzeko falta ziren lurzoruetan.

Zurriola aldeko itsas bazterreko espazioan egon ziren, baita ere, huts egindako zenbait asmo urbanistiko, XIX. mendearen amaiera eta XX. mendearen hasiera artean. Besteak beste, Goikoa udal-arkitektoari enkargatu zioten 1883an Zurriolako pasealekuko lurretako plano bat altxa zezala erakusketa probintziala antolatzeko,

---

18. José María Zubia zumaiarra (1801), «Mari» ezizenaz ezagutua eta arrantzale zein marinelen artean oso maitatua, XIX. mendean itsas salbamenduko lanetan eta erreskatean zebilen Gipuzkoako eta Euskal Herriko bazterretan, bere ausardia eta trebetasuna behin baino gehiagotan frogatuz, 1866an itota hil zen arte.

eraikina kokatzeko azalera libre utziz. Proiektua ez zen aurrera eraman, zeren udalak beste obra urbanistiko batzuk baitzituen egiteke urte horietan. Baina urte horretan bertan partikular batek beirazko jauregi bat eraikitzeko baimena eskatu zion udalari, Zurriolako hondartzan bainuetxea ezartzeko. Jauregiak pasealekua izango zuen bere ingurumari guztian eta horrez gain zaldain-zubi estali bat ere atxikia, zenbait metro irteten baitzen kostaldetik itsasora. Ideia horrek Kontxako hondartza izan zuen lehenengo eta behin kokagune aproposa, baina badiako ainguralekua eta portuaren proiektuak donostiarren pentsamenduan zeuden oraindik, hiri komertzialaren eta turismoari zuzenduriko hiri ikuspegiaren arteko eztabaida beroetan. Beraz, Zurriola aldeko zabalgunearen aukerak ikusirik bertako parajea aintzakotzat hartu zuten. Nola edo hala, itsas bazterrean aurreikusi zitzaketen arazoak ez zituzten, dirudenez, dimentsio egokian aztertu eta erreflexionatu.

XX. mendea hastearekin batera, 1900ean Kursaal, udako antzokia, neguko jauregia eta lorategiak, aisiadirako saloiak eta hotela bilduko zituen konplexua eraiki nahi izan zuten Zurriolan, ingurunea hiri-altzariekin eta arkitekturaxoekin egokituz (iturriak eta kioskoak). Ordurako, hiri turistikoaren ideiak indar harturik, erabat busti zituen donostiarren mentalitateak. Kursaalaren ideia, beraz, bizi-iturri garrantzitsua izan zen Donostiarentzat, urte horietan zeukaten dilema ikusita. Zeren eta udatiarrak erakartzea jadanik ez baitzen nahikoa eta negurako ere hiri atsegina bilakatu nahi izan zuten; udako zein beste urtaroetako hiletan ere turista dirudunak espero zituzten eta. Batzuek defendatzen zuten Zurriolako pasealekua proiektu honek hobetuko zuela. Beste batzuk, aldiz, ur-bazterreko eraikinek itsasoaren eta hodeiertzaren ikuskizuna oztopatuko zutelakoan zeuden, Kontxan zeukaten lehen ikusitako ardura berberekin. Proiektuaren aldekoek Zurriolako pasealekuaren onurak erakusten zituzten, itsas bazterrearen balioztapenak ibaiaren beste aldeko hiri historikoarekin eta zabalgunearekin bat egingo zuelakoan, kostako lerroaren norabideak behin betiko irekiz.

Kursaalarekin batera 1912an Itsasoko Perlaren administrazio-kontseiluak Zurriolako zabalgunea burutu ostean bertako hondartzan bainuetxe berria kokatzeko eskaria egin zuen, Kontxako beste bainuetxearen gutxi gorabeherako erreproduktzioa izanik, batik bat eraikinaren tipologia arkitektonikoaren aldetik. Garai hartan Kontxako bainuetxeak zeuzkan antzeko dorreak Zurriolan ere agertzeak, Kursaalaren aldameneko espazioan, ez zion udalari inolako poztasunik eman eta pasealekuak itsasora zeuzkan bista oparoak zeharo murriztuko zituela argudiatu zuten berriro ere.

Badiako beste aldean, Antiguako auzo historikoa Igeldo mendiko oinetatik eta Ondarretako hondartzaren luzapenetik gaur egun Miramar legez izendatzen den Loretopeko<sup>19</sup> harkaitzetarainoko zabaleran mugatu izan da itsas bazterrean. XIX. eta XX. mendeen artean itsas ondoan gero eta urbanoago bilakatu zen espazio horretako elementuen artean dominikarrek aspaldidanik erabiltzen zuten haize-

---

19. Erdaraz «Pico del Loro» edo «Pico del Oro» deitua, Loretoko Amabirjinarren ermitatxo zegoen (Antiguako kanposantu zaharraren barnean, kartzelaren eraikuntzarako eta tranbia-bidearen ezarpenean harri-iturri lez erabilia udaleko akordioen arabera; harria oso eskuragarria eta merkea baitzen) harkaitz haien gainean, eta izena hortik datorkiola diosku Txillardegik (Loreto-pea, hasieran «Pico del Lorito» bihurtua). Bertatik oso gertu Zaldisko-Zokoa ageri da, jadanik Kontxako hondartzarantz abiatuz, XX. mendearen azkenean Chillidaren eskultura bat jarri zuten pasealekuko begiratokian.

errotaren aurriak aipa daitezke bertako paisaiaren identitate-puntu sinboliko gisa, XX. mendearen hasieran jadanik erabat desagertua. Gipuzkoak ezagutu duen haize-errotarik zaharrenetakoa eta agian bakarra Antiguako Lugaritz alde horretan kokatua zegoen beraz, bere dorre biribil bitxia zuhaitz gainetik erakusten zuela. Horrekin batera, beste dorretxo biribil bat ere agertzen zaigu XIX. mendearen akabuko argazkietan, II. Karlistaldian eraikitakoa alegia, eta «Fortín del Antigo» erdaraz izendatua. Loretopeko tunela zabaltzerakoan eraitsia, hamabost bat urtez baino ez zuen iraun zutik, Miramarreko erreginarenean jauregia eraiki aitzin. Horrez gain, itsas errota bikotea ere bazegoen Antiguan, itsasgora eta itsasbeheraren arabera mugitzen zirenetakoak, hauek ere arrastorik utzi gabe desagertuak.

Bestalde, arestian aipatu dugun Loretope muturreko eraikin multzoak nola-baiteko gaztelu-kutsua eransten zion ingurumariari, XIX. mendeko lehen erdian oraindino Antiguako auzoak baserri giroa mantentzen zuenean, industria eta bestelako urbanizazioak agertu aurretik. Alabaina, industriaren ezarpenarekin elkarrekin pilaturik bizitzen hasi zen langile-familia franko, batik bat etxebizitzaren urritasunaren eta garestitzearen eraginez. Egoera horretan, Bilboko metropolian arrunta zen txabolismoaren fenomenoak ere agerpena izan zuen, maila apalagoan bazen ere, Donostiako itsas bazterreko Antiguako paisaian (Arbizketako zubi eta harrobiaren ondoan) kartzela altxatzean eraitsiak: «Hortxe zeuden txabola ziztrin horiek, osasun-oinarririk xumeenak ere betetzen ez zituztelarik. Lan-txabolak ziren; eta maiz topatzen ziren horrelakoak harrobien ondoan, batez ere Donostiako harresiak botatakoan»<sup>20</sup>. Paisaia berberean agertuko zen, aitzitik, egitura sozialen kontraste itzelaren eredugarri zen Toki Eder jauregi xarmant eta bikaina. Hortik aurrera, industriak, langilariaren etxebizitza umilek eta jauntxo dirudunek egindako txalet zein jauregitxoek elkarrekin bizi beharko zuten Antiguan, nekazaritzako eta abeltzaintzako baserriekin batera, itsas bazterreko paisaiaren ikuskizun benetan xelebrea irudikatuz, garaiko zuri-beltzezko argazkietan bederen.

Egoera horrek aldaketa nabaria izango zuen, ordea, XX. mendearen atarian, batik bat donostiarren pentsaeran turismorako eta uda-pasarako burges hiriaren asmoa irmo errotu zen urteetan. Horrela, Miramar jauregiaren eraikuntza Antiguako Loretopeko mutur horretantxe planteatzeko orduan, auzuneak zeuzkan «puntu beltz» lotsagarrienak begien bistatik kendu behar zirela-eta, etxe talde batzuen eraispena erabaki zuen auzo-batzordeak, ohikoa zen legez bertako handikiek osaturikoa.

XX. mendeko bigarren hamarkadaren hasierarekin, Antiguako auzoaren berre-raiketa-plana onartu zuen Donostiako Udalak. XIX. mendeko amaieratik luxuzko txaletak zeuden aldea existitzen zen Miramar jauregitik gertu (jauregiaren atzean eraiki bide zuten kasino berria, hain justu ere jokoaren debekua etorri zenean; murruen hondakinak gelditu ziren haren testigu), urbanizazio berriak errespetatu

---

20. Antton Agirrek *Tratado de molinología* liburuan (1988) errota bikoitz horien berri ematen du, Txillardegik berak adierazten duenez. «Hala ere, errota zahar horren oroitzapena nolazpait gorde da gaur arte; 'Lizarriturry-Rezola' fabrikaren lehenengo mendeurrena ospatzekotan lantegiak argitara zuen liburuxkan». Alvarez Enparantza, José Luis (Txillardegi) (1992): *Antigua 1900*, Gipuzkoa Donostia Kutxa, Donostia, 198. or.

eta urbanistikoki osatuko zituenak gerora. Zabalguneko masifikazio urbano erlatiboak Donostiako eliteko dirudun batzuk erakarri zituen Ondarreta, Miracóncha eta Igeldorantz, lasaitasuna eta itsasoaren gertutasuna gogoko zituzten eta. Horrela, Antiguako zabalgunek ere ur-bazterreko beste zenbait espazio esanguratsuk jasan zituzten antzeko prozesuak biziko zituen.

1887an Nemesio Barrio udal-arkitektoak Antiguako hareatzetan zeuden padurak sikatzeko eta aprobetxatzeko memoria idatzi zuen. Antiguako hareatza horietan erabaki zuen udalak kartzela berria eraikitzea, beste alde batzuetako lurzoruen prezioen gorakada itzelak ikusita. Bestalde, Igeldo azpiko paduretan txaletak eraiki nahi izan zituzten dirudun batzuek 1915ean, udalak lorategiak eta pasealekuak baino ez zituela proposatzen eta, hiriaren hurrengo zabalgunea izango zen auzo berri bat sortzeko. Izan ere, udala sano setati zebilen itsas bazterreko lan urbanistiko edota arkitektonikoak onartzerakoan, kostako paisaiaren balioak zirela medio. Arraroa, beraz, kartzela bezalako azpiegitura estetikoki susmagarria eta sozialki are eta arbuia garriagoa itsas bazterreko ekartzea, batez ere Antiguako auzoan eta Ondarretako hareatzan zenbait partikularrek luzaturiko eskaintzen aurrean.

Miramar jauregiaren eraikuntza, Madrilerako errepidearen iraganbidea eta kasino zein jolastokien gertutasun erlatiboa jendea erakartzeko elementu egokiak izango ziren. Gainera, Antiguako komentua San Martineko auzoarekin lotu zuen errepidea hareatzaren oinetan zegoen. Errepidea olatuen lerroari egokitu zitzaion eta Kontxak duen itxura berezia areagotu zuen. Bertan, Luis Elizalde arkitektoak idatzi zuen plangintzan euskarritutako hiri-hazkundera hasiko zen gertatzen 1919-1921etik aurrera. Ondarreta bazterreko lorategi-erako etxeak plan horretan barneratzen jakin zuen Elizalde. Egitasmo hori, hala ere, Antiguako auzoaren atzealdean eta bertako espazio urbanoari bizkarra emanda gauzatuko zuten. Bestalde, XX. mendeko bigarren hamarkadan hondarrari eusteko horma bota zuten eta militarren maniobra-leku izandako zelaia Donostiako hondartzarik onena bilakatu zen, 1948an kartzela desagertutakoan gaur egun duen itxura hartuz. Hondartza inguratzen duten pasealeku eta lorategiak 1925ean hasi ziren sortzen, garaian lurzoru horien aprobetxamendurako zeuden egitasmo merkantilistei men egin gabe. Hala ere, lehen esan bezala zona horretan industriak zeukan presentzia eta babesak aldaketa batzuk eragingo zituen lorategi-hiria hobesten zuten eraikuntzarako arauetan.

Langile-koloniek, industriek, biltegi eta tailerrek, etxebizitza burgesek eta udatiarrentzako zerbitzuek espazio berbera konpartitzen zuten, beraz, Antigua eta Ondarretako tarte baliotsu horretan. Brunet Sozietateak lorategi-hiria sortu nahi izan zuen XIX. mendeko azken urteetan, bide batez Igeldoko funikularrari eszenatoki duina prestatuz etxebizitza «antiestetikoan» lerroak begien aurretik kenduta. Kartzela, troparen maniobrarako kanpoa eta hipodromo probisionala ere bertan egon ziren, itsas bazterreko paisaia xeleeen gozamina burgesei galaraziz. Arrazoi horiek zirela medio, konkurtsoa iragarri zuten 1918 eta 1921. urteen artean, Luis Elizalderi egokitua. Traza ortogonalak erakusten zuen urbanizazioa lau tipologia desberdinetan klasifikatuiz: burgesiarentzako etxeak, landa-eremuko etxeak, enpresa-arduradunen etxeak eta langileentzako etxeak. Zabalgunek funtzionaltasun bikoitza zuen: alde batetik kalitate handiko lorategi-hiria (zerbitzuen konplexutasuna beharko zuen; igerilekua, hotelak, kirol-kantxak) eta bestetik



industriaren espazioa, berriz ere elkarbizitza baimenduz udalak fabriken ugalkortasuna gauzatzeko egindako erreformen arabera. Luxuzko auzuneak garrantzi handiagoa eskuratu zuen lorategiz inguraturiko etxetxo eta jauregitxoekin, batik bat klase ertainari zuzenduak. 1925ean kuartel militarrek Martutenera aldatu eta gero hondartza irabazi zuten, Ondarretako lorategi-hiria eta itsasaldeko espazioak gorpuztuz.

Ur-bazterreko espazio urbano berri horietan Ondarretako lorategi lineala egokitu zuten eta, bertan, burges-hiriaren espiritua elementu estetikoetan sinbolikoki nola islatuko zen atzeman dezakegu. Hiri-altzariez gain, Alderdi Ederren<sup>21</sup> 1913ko urtemuga zela-eta jarri beharreko monumentuaren parteak (Javier Luque, Julio Apraiz eta Juan Piqué)<sup>22</sup> Ondarretara eramane zituzten, eta bertan M<sup>a</sup> Kristina erreginarene estatua kokatu<sup>23</sup>. Urumeako bokaleko Zurriolako partean, Néstor Basterretxearen *Bakearen Usoa* (1991) aurkitzen zen, ondoren Amarara aldatu zutena. Ondarretako pasealekuan José Ramón Anda euskal eskulturagilearen *Zeharki* 1989ko piezak elkarrekin erlazionaturiko hiru kono-enbor luze edo zilindro zut erakusten dizkigu, espazioaren joko formalak lehen planoan ezarritik<sup>24</sup>. Era horretako arte-adierazpenak Zarautzeko kasuan ere ikusiko ditugu, edota, distantziak salbu, Donostiako badiako erpinetan (Oteiza eta Chillidaren adibideekin).

Antzinako arrastoen testigantza eta modernitateko adierazpen arkitektonikoez gain (eklektizismotik neoestiloetaraino), maiz monumentuak balira bezala ondare gisa atzematen eta kontsideratzen ditugunak, Donostiako badiari hiriak eskaintzen dion aurpegian bertan kokatzen da nahiko izaera enblematikoa bereganatu duen Manuel Aizpuruaren eraikina, 1928koa. Inguruan duen zabalguneko beste eraikin modernisten (udaletxea kasurako) eta itsas bazterreko hiri-altzari sinbolikoen aurrean, Klub Nautikoak arkitektura arrazionalistaren parametroak ditu baina XX. mendearen lehen hereneko premisa arrazionalista ortodoxo haien purutasunetik aldenduta. Europatik zebiltzan korronteen eragina nolabait gurera erakarrita edo, ikono gisako erreferenteak garbiro ikus daitezke eraikitzeke halako moda baten aurrean zeudela uste zuten arkitektoen obretan. Orotara, ongi integratzen da aldameneko pasabide eta moilarekin, pribilegiozko kokagune horretan muga-espazio hirukoitza ezarritik: Kortazarren zabalgunearekin, itsasoarekin eta hiri primitiboko portu zaharrarekin, Urgull mendiaren magalean gotorturiko Erdi Aroko hiriarekin. Urteen joan-etorrian joera urbanoen garapenak hartzen dituen bideak nola edo hala elkarren parean jartzen dira puntu horretantxe.

---

21. Bertan XIX. mendeko ninfa neoklasikoak eta ornamentaziozko beste iturri batzuk (XIX. mendeko gustu neoklasiko berankorraren adibide, izaera industrialdun burdinazko piezak zuriz pintatuak), mende horretako Antonio Friuli-ren marmolezko lehoi neoklasikoekin eta 2007an Aitor Mendizabalek jarritako *Memoria-Oroimena* brontzezko zutabearekin espazioa konpartitzen dute.

22. Carrarako marmolez eginiko monumentu neoklasikoa inork ez zuenez gogoko, 11 urteren ostean kendu zuten.

23. José Díaz, 1942. Oinarrri neoklasikoa eta brontzezko estatua modernista bereizten dira. Oinarrria marmol zuriz egin litzateke, Espainiako eta Austriako elementu heraldiko apaingarriekin.

24. Donostiako I Eskulturako Bienalean lehen saria izan zuen 1983an zementuzko eskultura handiak, eraikuntza Grupo Vitalicio taldeak ordaindua.



**3. irudia. M<sup>a</sup> Kristina erreginaren omenezko monumentua eta J. R. Andaren Zeharki eskultura. Donostia.**

Hiri-altzari esanguratsu eta arkitekturatxoei dagokienez ere, XX. mendeko lehenengo hamarkadan Alberto Machimbarrena Gipuzkoako eta Nafarroako obra probintzialen buru zen ingeniariak kontu emana zuen ezen partikular batek bi solairuko kioskoa ezarri nahi zuela itsas bazterreko harkaitz batzuen gainean, Antiguako errepidearen ezkerrean Miramarreko tunelera heldu baino lehentxeago. Alabaina, lurzoruen jabeak ez zuen inolaz ere bere propietatea zeregin ekonomiko horretarako eman nahi (freskagarriak eta edangarriak saltzeko kioskoa), bitxia bada ere, bertako paisaiaren eraldaketa ez baitzuen onartzen. Aitzitik, lur-sail horietako batzuk udalari utzi zizkion kondizio gisa itsas bazterreko paisaiarekiko errespetua eskatuta.

Izan ere, XX. mendearen erdialderantz abiatuz 1920ko hamarkadaren hasieratik 1940ko hamarkadaraino Donostiako Udaleko ingeniaria izan zen Juan Machimbarrenak *Urbanismo aplicado. San Sebastián presente y futuro* liburua argitaratu zuen. Donostiak bere ustez burutu beharko zituen urbanismoko lan publikoak (batzuk laguntza pribatuarekin) biltzen zituen dokumentu programatikoa balitz bezala, berak diseinaturiko hirigintza esku-hartzeak ere erruz agertzen direlarik. Horietako batzuk etorkizunean garatu ziren, nahiz eta modu diferentean izan edota sano eraldatuta. Marrazkiek amestutako (eta, alegia, batzuek gorpuzturiko) ideia horien berri ematen digute: Santa Klara uharteko hotel-kasinoa eta bainuetxea, Ulia mendiko udal-parkea pasealeku eta begiratokiekin, Loretopeko pasealekua Miramar azpiko itsas bazterrean (Kontxa eta Antiguako Ondarreta hondartzak bereizten dituzten harkaitzetan), Kristina Enea parkearen hedapena, Paseo Berriaren luzape-na edota portuko moiletan parke-lorategi berri batzuen instalazioa besteak beste.

XX. mendea iragan ahala, Antiguako urbanizazioan eraikin eta tipologia desberdinen anabasa hasi zen sumatzen, bertako itxura urbanoa homogeneousasunetik sano urruti baitzegoen, batez ere inguru hartan bestelako egiturak eta ustiapen ekonomikoak planteatu nahi zituztenen begietan. Huraxe izan zen sustatzaile batek 1966an Donostiako alkateari luzatu zion eskutitza. Bere ideia Ondarretako hondartza balioztatzeko sei haize-orrazi eraikitzea zen, Santa Klara uhartea ere aprobetxatuz bertan lorategiak, kasinoa, terrazak eta kirol zein aisialdirako ontzientzat kaia ezartzeko. Esan beharrik ez dago jadanik «desarrollismo» etaparen barnean gaudela eta sustatzailea udalaren lur publikoek jabetu nahi izan zela luxuzko etxeak merkeagoak izan zitezten, Tennis Klubak erabiltzen zituen lurretan, haien azpian garaje handiak ere proiektatuz<sup>25</sup>. Haize-orraziek Donostiako turismoa areagotuko zutela defendatzen zuen, komertzioarentzat ere bultzada ikaragarria izanik (gerora Chillidaren eta P. Gancheguiaren *Haizearen orrazia* obra eskultoriko, arkitektoniko eta urbanoa agertuko zen erpinean). Laburbilduz, eremu erabat produktiboa bihurtuko zen, urte haietako ideologiaren arabera pentsatua eta taxutua.

Nolanahi ere, Antiguako itsas bazterreko espazioetan bat baino gehiago izan ziren XIX. mendetik XX. menderako tartean burutuko ez ziren proposamenak, gaur egun auzuneak duen konfigurazio urbanoa hartu ere. Antolaketa horretan kontu egin behar da aurrera ateratako proiektu urbanoek bezainbeste huts egindakoek ere eragin nabaria izan dutela. Besteen artean, Ondarretako hondartzan bainuetxea jartzeko asmoa ezagutu zen XX. mendeko bigarren hamarraldian, hondartzako espazio guztia aprobetxatzearen toloak, eguzkitakoak eta bestelakoak ezarriz zoru publikoetan. Egitasmo horrek bere aurrekaria ere izan zuen 1908an, Alday arkitektoak Ondarretako hondartzan bainuetxea ezartzeko baimena eskatu zuenean.

XXI. mendearen hasieran, izan ere, ehun urte lehenagoko hedakuntzaren inputsoak nolabait baretuta, okupatu gabeko edota ezein funtzio bete ostean libre geldituriko espazio hutsetan esku hartzeko izan ziren proposamenik ohikoenak. Bestalde, itsas bazterreko egitura urbanoan Ondarretatik Pasaiaraino bultzatu daitezkeen loturetan arreta jartzen du Donostiako Hiri Ordenazioko Plan Orokorrak (oinezkoentzako pasealekuak, bizikletarako ibilbideak; ur-bazter historiko horiei nortasun berritua eta konpaktuagoa emanez). Izan ere, Ibaetako lautadatik itsas bazterreraino, eta Lugaritzeko magaletatik Igeldoko ekialderaino doan Ondarreta eta Antiguako kalitate urbano egokia azpimarratzen du Plan Orokorrak (aspaldi Donostiako industriaren eta bestelako zerbitzuen kokagunea: kartzela, militarren maniobragunea...), bertako elementu bitxien eta berezien presentzia goraiapatuz: Ondarretako pasealekua (*Haizearen orrazia*, Erregenea...), hondartza, Miramar jauregia<sup>26</sup> edota Igeldoko parkea. Hauxe baita Donostiak itsasoari eskaintzen dion

---

25. Sustatzaileak «soluzio modernoak» dioenean eta hirigintzako adituek haize-orrazien alde daudela aho batez ziurtatzen digunean, lerro tartean irakurri behar da eta arkitektura modernoaren ideiak aurkitu behar dira hor zokoratuta, abangoardiatik eta arrazionalismo arkitektonikotik eratorriak eta ondoren arkitektura internazionalak bere egindakoak. Alabaina, erabat perberturik, espekulazio ekonomiko urbanistikoaren sabelean azpiraturik gelditu ziren ideia horiek 1950, 1960 eta 1970eko hamarkadetako Mendebaldeko arkitekturaren baita beste herrialde zein kontinenteetara esportatutakoan ere, batez ere Hirugarren Munduko metropoli handi eta hirigune berrietara.

26. Miramar Jauregia, lorategiak eta *Haizearen orrazia* ondare babestuen katalogoan ditu Plan Orokorrak.

itsasalderik ikusgarriena eta sinbolikoena. Paisaiaren balioak mantentzea eta areagotzea, beraz, Kontxako badiako ikuseremuan leudekeenak izanik, Donostiaren etorkizuna berrasmatzeko iraganari begiratzea ezinbestekoa litzateke; urteen joan-etorriak itsas bazterrean itxuraturiko kulturaren, ondarearen, memoriaren eta identitate urbanoaren agertoki oparoa, fenomeno urbanoaren estetikan ez ezik, jendartearen bilakaera sozial, ekonomiko eta antro-pologikoan ere sustraitua. Igeldoko mendian bertako herrixka historikoaz aparte, ipar-mendebaldeko magaleko etxebizitzak genituzke, adibidez, duela ehun bat urtetik hona eraikitakoak edo, mendi-tontorretik behera datorren errepide uhintsuan itsas bazter esanguratsua konfiguraturaz (gaur eguneko paisaia kulturalki eta estetikoki estimagarria, alegia).

Badiako beste muturrean, Zurriolako partean litoraleko ur-bazter historikoa berreskuratzeko xarma handiko interbentzio urbanistiko arkitektonikoak izan ditugu, batik bat Moneo arkitektoaren eskutik Kursaal berriko eraikuntzarekin, azken boladako arkitektura xelebreari dagokionez. 1973an 50 urte lehenago eraikitako kasinoaren erantsi zuten. Hamar urte lehenagotik, 1963an itsas bazter horren probetxurako bazegoen asmorik, hotelak, etxebizitzak, komertzioak, garajeak, zinemak, patinatze pista, jatetxeak eta igerilekuak proposatzen zituen aurre-proiektuen lehiaketarekin. 1972an, Corrales, Vázquez eta Peña Ganchegui-ren proiektuak ez zuen udalaren oniritzia izan, agian gehiegizko presentzia zuen dorrea aurkezten baitzuen. Aldaketa nabariek 1975ean eraikitzen hasita, zimenduak soilik geratu ziren itsas bazterreko hondarretan. Ideia irabazlea egiteko ezinezkoa suertatu zen, garaiko eraikuntza-materialen ikuspegitik. Kasinoaren eraikina botata, 1974an beste konkurtso bat deitu zuten eta hurrengo urtean hirugarrena. Azkenez, 1999 arte lozorroan itxaron behar izan zuen Moneok *Harkaitz hondartuak* lemapean aurkezturiko proiektua azaldu arte. *Lehorreratutako bi arroka* izenburudun solido geometrikoak plataforma batetik azaleratzen diren bi bolumen prismatikoz osatzen dira. Oteizaren bolumen maklatuak lekuko, prisma-rik handiena, itsasadarrera ere orientatzen da aldi berean.

### **Eskultura elementu eraikitzaile eta baldintzatzaille gisa «itsasoko behatokien» eraikuntzan**

Hirigintzak eskulturarekin izandako harremanaren testigantza atondurik «itsasoko behatoki» funtzioa betetzen duten beste leku enblematiko batzuk gogora ekarriz, Donostiako itsas bazterrean kokaturiko bi espazio sinboliko (itsasoaren eta hiriaren arteko muga markatzen dutenak) kontuan hartuko ditugu; eskulturak elementu eraikitzaile eta eragile gisa duen nagusitasuna izango baita espazio hauen berezitasuna. Lehenengo eta behin Donostiako badiako itsas bazterreko muturrean kontrajarriak daudenak hautatuko ditugu, aurreko lerroetan darabilgun testuinguruan. Bi toki horien eraketan ezinbestekoak izango dira Eduardo Chillidaren *Haizearen orrazia* eta Jorge Oteizaren *Eraikuntza hutsa (lau unitate zapalekin Negatiboa-Positiboa)* eskulturak. Hauekin nolabaiteko konparaketak eginez, Gijonen Santa Katalina deritzon muinoan kokaturiko E. Chillidaren *Elogio del horizonte* komentatuko dugu eta, azkenez, Zarautzeko hondartzako pasealekuko Elena Asins eskultorearen *Canons 22* obra.

Donostia abiapuntua izanik, aproposa iruditu zaigu Gijonen eta Zarautzen dauden obra bi horiek aipatzea, haien artean sortzen diren erlazioak eta desberdintasunak direla-eta. Ikusiko ditugun eredu guztietan paisaiak, itsasoak eta behatoki kontzeptuak hartzen duten garrantzia agerian dago; halere paisaiaren eta behatoki kontzeptuaren konnotazioak desberdinak dira. Alde batetik, Donostian kokatutako piezak mendiaren babesean egoteaz gain, pasealeku baten muturretan ere badaude (aisialdirako toki batean daudela esan dezakegu, hiriaren, hau da, fenomeno urbanoaren hasiera eta amaiera markatzen dituen tokian). Gijonen kokatutako Chillidaren eskultura, aldiz, portuko industrialdea, hirigune zaharra eta hiri burgesa erdibitzen dituen tontorrean txertatzen da, lurraldetasunaren eta hiriaren hiru elementu horiek ongi ikuskatzen diren «begiratokian» (Donostiako gaur eguneko industrialderik oparoena Pasaiarantz hedatutako metropolian ezkutatzen da). Zarautzeko adibideari, ostera, interesgarri deritzogu Donostiako Kontxako barandarekin duen antzekotasunagatik (antzekotasun sinboliko funtzionala), itsasoaren eta hiriaren arteko muga irudikatzen baitu (E. Asinsek egindako eskulturaren kasuan, XX. mendearen amaierako artelan baten bitartez, eta Donostiako Kontxako barandaren kasuan, XX. mendearen hasierako elementu funtzional eta estetiko baten bitartez).

*Haizearen orrazia*, E. Chillida eskultorearen eta Luis Peña Ganchegeui arkitektoaren arteko elkarlanaren ondorioa da eta 1977ko irailaren 16an inauguratu zen. Artelan hau, talde eskultoriko arkitektoniko deritzoguna, Donostiako itsas bazterreko mutur batean kokatuta dago, Ondarreta hondartzaren luzapenean eta Igeldo mendixkaren behealdean hain zuzen ere. Aipatzekoa da, toki horretan bertan gauzatzeko proiektua izan zela eta, beraz, espazio osoaren berreraikitzearen lana alde aurretik egileek pentsatua zutela.



**4. irudia. *Haizearen orrazia*. Eduardo Chillida. Donostia.**

Esan bezala, talde eskultoriko arkitektoniko honetan, alde batetik elkarri begira dauden burdinazko hiru pieza ditugu (Chillidarenak), itsasoan baina aldi berean hiriarekin mugan dauden hiru harkaitzetan «ainguratuak». Badirudi harkaitzek euskarriaren funtzioa bete dezaketela hemen; halere, arroka gaineko objektuarekin integratuta dagoela pentsa dezakegu zeren eta itsasoaren indarrak eta haizeak ez ezik, burdinazko eskulturrek ere harkaitzen ezaugarriak aldatzeko gaitasuna baitute. Olatuen kolpeek eta uraren gatzak burdina herdoildu eta eskulturen zein harkaitzen kolorea aldarazten dute. Herdoil-orbanak uztartu egingo du, ondorioz,

harkaitza bera burdinazko piezarekin. Halandaxe, agerian dago naturaren eragina obraren eraketan eta bere materialtasunean egunero gertatzen den aldaketan, zeren naturaren indarrak, piezak etengabe aldatzen baititu.

Beste alde batetik, esanguratsua da eskulturetara hurreratzeko eta begiratzeko prestatutako atrio erako enparantza —guretzat behatoki-funtzioa betetzen duena— eta honen zorua. Nahiz eta Peña Ganchegui arkitektoaren proiektua izan, nabaria da Chillidaren obraren (batez ere bere grabatuen edo marrazkien) eragina bertako zoruan agertzen diren formetan. Horietariko zazpi, zulaturik dauden erliebeak dira eta bertatik ur-zarrastadak ateratzen dira itsasoak indar handia duenean; hortaz, hemen ere itsasoaren eragina edo presentzia agerian dago. Plazak, aldi berean, paisaiaren eta burdinazko hiru eskulturen behatoki-funtzioa betetzen duela uste dugu. Ikusleak behartuta daude distantzia eta toki zehatz batetik Chillidaren obra ikustera, museoetan gertatzen den bezalaxe; horrek, distantzia eta kokapen jakin bat markatzen duelako. Mailakatua dagoenez, begiratzeko zenbait posizio sortzen dira eta ikusleei ezkerretara zein eskuinetara mugitzeko aukera ematen zaie —enparantza kokagune espezifikoak izanik—.

Hala eta guztiz ere, espazio hori artelanaren partetzat jotzen baldin badugu, hau da, hasiera batean esan dugun bezala talde eskultorikotzat jotzen badugu, ikuslea parte-hartzaile bihurtzen da, itsasoaren eta itsasoan kokatuta dauden objektuen begirale, ikuslea obraren atal egituratzaile bilakatuz. Espazio zehatz honetan (hiriaren eta itsasoaren arteko tartea eta muga-funtzioa betetzen duena) paisaia berezi bat sortzen da kanpotik begiratua izateko, bere osotasunean, eszenatoki bat izango balitz bezala. Hau ez da gertatuko, adibidez, jarraian ikusiko ditugun hurrengo kasuetan.



5. irudia. *Haizearen orrazia*. Eduardo Chillida eta Luis Peña Ganchegui. Donostia.

Donostiako Paseo Berrian, Urgull mendixkaren azpian Oteiza eskultorea-ren pieza dugu: *Eraikuntza hutsa (lau unitate zapalekin Negatiboa-Positiboa)*. Baseliza bat eta bertan eraikia zegoen monumetua ordezkatzan ditu (*Monumento a las victimas del Crucero Baleares*, hain zuzen). Esan beharra dago eskultura hau printzipioz ez dela sortua izan bertan kokatzeko; berez tamaina txikiko objek-tua da eta 1957. urtean Sao Pauloko Bienalean saritua izan zen serie esperimen-talari zegokion arloan. Halere, 2002. urtean eskalaz handitu eta Donostiako itsas bazter historikoko Paseo Berrian jarri zuten, Urgull mendiaren oinean.

Kasu honetan azkenaldian sarritan erabiltzen diren errekurtoak azpimarratuko ditugu. Alde batetik, eskultorei mesederik egiten ez dien eskala-aldaketa eta, bestetik, eskulturaren ulermenerako oztopo besterik ez diren materialen presentzia; esate baterako, hiriko edozein espaziotan aurkitu ditzakegun hiri-altzariak, hormigoiz egindako eskailerak, hainbat testuingurutan jartzen den egurrezko zorua eskulturaren oinarri edo base gisa, etab.



**6. irudia. *Eraikuntza hutsa (lau unitate zapalekin Negatiboa-Positiboa)*. Jorge Oteiza. Donostia. Olabeagako mahaiak eta eserlekuak. Bilbo.**

Honen adibidea 6. irudiko argazkietan ikus dezakegu; material berdinak funtzio anitz bete ditzake —kasu honetan bi toki eta elementu desberdinetan—. Hala eta guztiz ere, bai Oteizaren eskulturaren azpialdean dagoen egurrezko zorua —oinarri-funtzioa betetzen duena—, bai 6. irudian ikusi ditzakegun eserlekuetan (Bilboko Olabeagako ibaiertzean kokaturiko eserlekuak eta mahaiak) dagoen egurrezko zorua, antzekoak dira (lorategietan jartzen diren altzarien itxurakoa, parkeetan agertzen diren zubien tankerakoa eta, baita, igeritokien inguruan jartzen den egurrezko zorua ere gogorarazten digutenak). Gauza bera gertatzen da Olabeaga pasealekuko argazkian ikusten ditugun hormigoizko eskaileraren altuerarekin eta materialarekin. Desberdintasuna eskuinaldeko argazkiko eskaileretan dago; honetan egurrezko zorua, eskaloifuntzioa betetzeaz gain, eserlekuaren elementu eraikitzaile bihurtu da, eta horretarako erabiltzen den baliabidea, eskaileraren atal baten egurrezko oholekin hormigoizko gainazala estaltzea da. Eserlekua eskaile-

raren gainean markatuta edo irudikatuta agertzen zaigu horrela, hiri-altzari funtzioa gehigarria edo gainjarria izanik.

Nola edo hala, Olabeagan eraiki den toki hori, arteak –eskulturak batik bat– espazioaren eraketan erabiltzen dituen errekurtsoen erabileraren adibide argia da eta apurka-apurka nabaritzen dugu gaur egungo espazio postmodernoetan, hiri-altzariak, artelanek tradizionalki okupatu dituzten espazioak eta agian bete dituzten funtzioak bereganatzen ari direla. Esan dezakegu hiri-altzariak (oro har diseinuko enpresek egiten dituztenak eta ezaugarri estetiko bereziak dituztenak) euren mugak zabaltzen ari direla eta espazio postmodernoen eraketan parte hartzen ari direla elementu eraikitzaile moduan, arkitektura-eskultura erlazioak egingo lukeen bezalaxe. Espazio postmoderno hauek, era kontzientean edo inkontzientean, eskulturek eta monumentuek betidanik espazio publikoan okupatu duten lekua eta bete dituzten funtzio sinbolikoak bereganatzen hasi dira; nahiz eta artelanak aurkezteko ohiko erari dagoeneko ez jarraitu; hau da, titulua, argiztapen berezia, fitxa teknikoa, etab.<sup>27</sup>.

Nabaria da eskultura kontzeptuak aldaketa izugarriak jasan dituela 1970. urtetik hona; Rosalind Kraussek beste autore askoren artean dioskun moduan (Remesar, Maderuelo, Brea...), eskulturak pairatu duen objektu-bilakatze prozesuak oinarriaren desagertzea suposatuko du. Postmodernitatean murgildurik, monumentu tradizionalaren oroitzapen-funtzioa ia desagertzen denean, objektuak euskarritik «jaitziko» dira ikuslearen espaziora eta zoruan kokatuko dira (R. Krauss). Begi bistan behintzat, ez dago objektua gorai patzen edo gugandik urruntzen duen oinarriarik (peanarik). Dena den, esan dezakegu desagertze hori partziala baino ez dela, zeren eta hainbat kasutan oinarria desagertzen baita elementu fisiko<sup>28</sup> moduan, baina ez, aldiz, eskulturaren elementu egituratzaile gisa, adiera birtualean bada ere. Zenbait artelanetan era kontzeptualean agertzen da eta, noizbehinka, artelanen kokapena arraro samarra denean, berehala oinarriaren ideia burura datorkigu, nahiz eta haren itxura tradizionala ez izan (era «imaginarioan» agertzen dela pentsa dezakegu); kokapenaren berezitasunak distantzia eta diferentzia markatzen baitu (nolabait nabarmendu eta aldi berean aldameneko objektuetatik desberdintzen du). Beraz, oinarri kontzeptua ulertzeko edo artelana ikuslearen espaziotik bereizteko eta urruntzeko estrategia berriak agertuko dira: kasu batzuetan bereizketa bisuala izaten da eta zoru-atal bat aldatuz lortzen da, beste batzuetan, eskulturak eskaileren gainean kokatzen dira, errotonden erdigunean, lorez inguratuta, etab. (azken finean, antzinako estrategiak eguneratzen dituzten formula berri aurkituak).

Aipatuko dugun hirugarren arte lana, 1989 eta 1990. urteen bitartean eraikitako Chillidaren *Elogio del horizonte* eskultura da. Porlanez eraikitako pieza hau Gijoneko badiako tontor batean eta itsasoari begira kokatuta dago (Santa Katalinako muinoan hain justu). Itsasoari begira egoteaz gain, aldi berean hiriko alde zaharrari eta portuari so, hiru toki horien erdigune estrategikoan dago.

---

27. Esan dezakegu ez direla artelanak kontsideratzen zeren eta Valeriano Bozalek dioenez, objektu bat artelantzat hartzeko, ez da nahikoa pertsona bakar batek ziurtatzea, giza taldeak erabaki behar du, artearen esparruan bilduko litzatekeen komunitateak hain zuzen.

28. Oinarria elementu fisiko legez eta baita euskarri (peana) tradizionalaren irudia ere.



XX. mendeko historia korapilatsuan abstrakziorako eta geometrizaziorako joera, material berrien erabilera eta hutsunearen garrantzia eskulturan handituz doaz, batez ere abangoardia artistikoen eraginez. Ikusten ari garen adibideak ezaugarri hauen adierazgarri garbiak lirateke hein handian. Orain hizpide dugun Gijoneko obra publikoaren antzekoetan hutsunea inguratzeaz gain, hutsune hori espazioa eraikitzeko elementu inportanteena eta askotan eskulturaren gaia bera bilakatuko da.



**7. irudia. *Elogio del horizonte*. Eduardo Chillida. Donostia.**

Bestalde, eskultura hau aurretik ikusi ditugunak baino gehiago zabaltzen da espazioan eta kokapena ere espazio irekiagoa dela esan daiteke; aurreko biak ostera (Chillidaren *Haizearen orrazia* eta Oteizaren *Eraikuntza hutsa* agian euren izaera propioan hertsiagoak dira eta kokapena ere mendiaren babespean dago). Izaera monumentala duen obra honetan, Chillidak porlana erabili du, lehen aipatu dugunez modernitatean hasitako material eskultoriko berrienganako hurbilpen gisa. Itsas bazterreko tontorrean eta eraikuntza militarra izan zenaren gainaldean, eraikin mota hauetako batzuek —bai hirien mugetan, bai mendietan, bai belarrez estalitako muinoetan, bai hondartzetan— antzina behatoki-funtzioa betetzen zuten (itsasotik zetozenak zelatzeko). Halandaxe, kasu honetan, jadanik aurretiaz eraikitako tokia bera karga sinboliko handiko lekua da, izugarri baldintzatua. Aldez aurretik bertan zegoena mantendu da eta urbanizazio berriaren eragina oso eskasa izan da (zenbait lanpara eta muinoa zeharkatzen duten ibilbideak soilik urbanizatuz).

Alabaina, tokiaren baldintzatze honek eskulturan eragina dauka eta alderantziz; aipagai dugun honetan, adibidez, ezin dugu baieztatu bakar-bakarrik antzinako arrasto batzuen gainean dagoenik. Aitzitik, aldi berean beraiekin —halaberharrez— harremanetan dago, hauen presentzia oso nabaria eta esanguratsua da eta.

Bukatzeko, atal honen hasieran genioen laugarren adibidea mintzagai izango dugula. Honako espazio hau Zarautzeko hondartzako lehenengo lerroko itsas bazterrean dago eta, bertan, aldiro ospatu izan den eskultura lehiaketako artelan sarituak kokatu izan dira sarritan. Oro har, bertan ikus ditzakegun artelanez erlazio metaforiko edota anekdotikoak baino ez dituzte inguruko espazioarekin, zenbaitetan dekorazio gisa edo itsas bazterreko lehenengo lerro urbanizatuaren apaingarri legez. Halere, salbuespen aipagarrienetariko bat Elena Asins artistaren obra dela ezin ukatu. Granito berdez eraikia dagoen *Canons 22* artelanak bigarren saria jaso zuen 1996. urteko lehiaketan.



8. irudia. *Canons 22*. Elena Asins. Zarautz.

Badirudi XX. mendeko 60ko hamarkadan «minimal» deitu izan zen joeraren oihartzunaren eredu adierazgarri izan daitekeen atal anitzez osaturiko pieza honek ingurumariako espazioaren elkarrekintzako kontzientzia erabakigarria pizten duela. Lerro luze eta horizontal baten bidez markatuta gelditzen da hiriaren eta itsasoaren arteko muga, distantziak salbu limite horretan aurkitu ahal izango genukeen baranda balitz bezala. Bestalde, horizonte-lerroa ere nabarmentzen eta areagotzen du zeharo. Donostiako Kontxako baranda ezagunak XX. mendearen hasieran estetika modernoarekin sinbolikoki hesitzen duen muga, beraz, Zarautzeko beste limite sinboliko honetan artearen estrategiak direla medio inskribatua eta berpiztua aurkituko genuke postmodernitatearen garaian (XX. mendearen amaieran alegia). Honetan ere, hutsunea ezinbestekoa baita; artistak erritmoarekin, kuboaren desmaterializazioarekin eta euren arteko distantziarekin jolasten du. Sortzen diren hutsuneak («negatiboak») objektuak (kubo errepikatuaren atal «positiboak») bezain garrantzitsuak dira, serie osoaren erritmoa markatzen baitute eta piezaren ulermenerako beharrezkoak baitira.

Deigarria gertatzen da artelan honi bertako herritarrek eman dioten erabilera. Izan ere, funtzio estetikoa eta baranda sinbolikoarena bete ez ezik, hiri-altzarien funtzioa ere betetzen ari da, bizikleten aparkaleku eta paperontzi funtzioa hain zuzen ere. Erabilgarritasuna ez da beti artistaren helburua baina batzuetan ez dago egilearen esku bere obra plastikoak jasan ditzakeen eraldaketak ekiditea edota kontrolatzea, batez ere espazio urbanoan finkaturiko eskulturaren kasuan, bere presentziak eragindako erantzunak ustekabeak eta angelu anitzekoak izan daitezkeelako.

## Ondorioak

Nabaria denez, Donostiak itsasoarekin izan duen borroka- eta lagungarritasun-harreman kontraesankorrak ur-bazterreko paisaiak modelatu ditu, bai fisikoki eta baita estetikoki ere, momentu batetik aurrera funtzionaltasunari baino estetikotasunari miresmen askoz handiagoa eskainiz. Zabalgunearen progresioak itsas bazterrean sortutako Kontxako badiako kurban ere azkar izan zuen eragina, bertan agertzen ziren hiri-altzari eta gainerako monumentu zein eskultura berriek itsaso ondoko paisaia adierazkorraren izaera finkatuz. Zabalgunearen erremateak garai hartan Donostiak izan zuen ondare urbanoaren kohesioari lagunduko zion izugarri. Horrela gauzatu zen denboraren iraganean Donostia itsasoko bornearekin identifikatzen duen irudi urbanoa.

Monumentu eskultorikoaren oroitzapenezko funtzioa espazio publikoan kasik desagertua denetik (R. Kraussen hitzak gogoratuz), sarritan eskulturaren erabilera gune urbano horietan apaingarria baino ez da izango, hau da, inguruko espazioaren aprobetxamendua eta lekuarekin lotura sinboliko eskasa edota hutsala izaten da oso maiz. Kasu batzuetan, artelan hauen esanahia objektuaren egituraren oinarritzen da, eta beste askotan objektu horiek irudi soilaren dekorazio-funtzioa betetzen dutela argi ikus dezakegu.

Aukeratu ditugun adibideak objektuaren egitura oinarritzen dira eta ur-bazterreko parajeekin erlazionatuta daude itsaso ondoko hiri-paisaia txit adierazgarri eta esanguratsuetan, batez ere E. Chillidaren *Haizearen orrazia* (Donostia), *Elogio del horizonte* (Gijon) eta E. Asinsen *Canons 22* (Zarautz). Oteizaren *Eraikuntza hutsa...* (Donostia) artelanaren kasuan, piezaren jatorria eta inguruarekiko erlazioa ez da kontuan hartzen eta material estandarizatua erabiliz (egurrezko zorua) toki zehatz bat (euskarri postmoderno bat) eraikitzen da, altzairuzko eskultura bera euskarri horren gainean jartzeko, gure adibidean Donostiako Paseo Berriko elementu apaingarri gisa, bertako hiri-altzarien ugaritasunarekin batera.

Interesgarriak iruditu zaizkigu, beraz, alde batetik, *Haizearen orraziaren* interbentzioaren ondorioz sortzen den espazio urbanistiko eskultorikoa, naturaren parte-hartzea obraren eraketan eta bertan ikusleak duen eragina; eta bestetik, Zarautzen kokaturiko *Canons 22* seriea. Honetan itsasoaren eta hiriaren arteko muga-lerroa markatzeaz gain, kokatuta dagoen lekuaren kontzientzia espaziala agerian gelditzen da. Aipatzekoa da, helburu eskultorikoa soilik duen artelan honi bertako biztanleek edota uda-pasako etorkinek erantsi dioten funtzioa, bata bestearen ondoan jarritako hiri-altzari sorta izango balitz legez, Donostian ez-bezala alderdi sinbolikoaz gain erabilgarria ere begi bistan agertzen zaigularik.

## Bibliografia

- Autore anitz (2002): *Hiri zabalgunek Euskal Herrian*, Eusko Jaurlaritz, Vitoria-Gasteiz.
- Artola, M. (ed.) (2001): *Donostiaren historia* (bertsio laburtua), Nerea, Donostia.
- eta Castellás, L. (2001): *Donostiaren historia*, Nerea, Hondarribia.
- Alvarez Enparantza, J. L. (Txillardegí) (1992): *Antigua 1900*, Gipuzkoa Donostia Kutxa, Donostia.
- Aversa, Clara S. V. (2003): *La tierra y el mar: la arquitectura en el borde litoral* (doktorego-tesia. Zuzendariak: Xabier Unzurrunzaga eta César Portela), Euskal Herriko Unibertsitatea, Donostia.
- Ayerbe, M. eta Fernández, C. (1999): “Jardines de Alderdi Eder y Alameda del Boulevard (Do-nostia-San Sebastián)”, *Arkeoikuska*, **98**, Eusko Jaurlaritz, Vitoria-Gasteiz, 403-407.
- , “Jardines de Alderdi-Eder y Boulevard (Donostia-San Sebastián)”, *Arkeoikuska*, **97**, Eusko Jaurlaritz, Gasteiz, 303-308.
- Barañano, K. (1982): *Chillida en San Sebastián*, Kutxa, Donostia.
- Bazal Corrales, J. (1986): *El Peine del Viento: Eduardo Chillida, Luis Peña Ganchequi*, Q Editions, Iruñea.
- Bookchin, M. (1978): *Los límites de la ciudad*, Blume, Madril.
- Bourlier, P. eta Clément, O. (ed.) (2003): *Making the city by the sea. Forum & Workshop Marseille 2001*, Berlage Institute, Fundació Mies van der Rohe/ Escuela Técnica Superior de Arquitectura de Barcelona, Institut Français d’Architecture, Bartzelona.
- Bozal, V. (1987): *Mimesis: las imágenes y las cosas*, Visor, Madril.
- Calvo-Sánchez, M. J. (1983): *Crecimiento y estructura urbana de San Sebastián*, Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, Donostia.
- Cenicacelaya, J. (2008): “Arquitectura y urbanismo en el País Vasco entre 1975 y 2009”, *Ondare*, **26**, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 37-63.
- Crespy, O. (2000): *Guide Donostia/Saint Sébastien. Architectures et sculptures*, Atlantica, Biarritz.
- Danto, Arthur C. (1999): *Después del fin del arte. El arte contemporáneo y el linde con la historia*, Paidós, Bartzelona.
- Díez Etxezarreta, J. “Arte en el aire. Un paseo por las esculturas urbanas de Donostia”, *Diario Vasco*, 1996ko otsailaren 4a.
- Donostiako Udala (2008): *Donostiako Hiri-Ordenazioko Plan Orokorra*, Plan Orokorren Bulegoa, Donostiako Udala.
- Elósegui Itxaso, M. (2007): *El Peine del Viento de Chillida en San Sebastián. Ingeniería de su colocación por José María Elósegui (1977)*, Kutxa Fundazioa, Dr. Camino Institutua, Donostia.
- Galarraga, I. (1996): *La vasconia de las ciudades. Bayona, Bilbao, Pamplona, San Sebastián, Vitoria-Gasteiz. Ensayo arquitectónico e iconográfico*, Iñaki Galarraga Aldanondo (ed.), Bilbo.
- Galarraga, I.; Unzurrunzaga, X.; López De Aberasturi, A.; Azpiri, A. eta Alkorta, J. M. (2002): *Hiri zabalgunek Euskal Herrian*, Eusko Jaurlaritz (Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila), Gasteiz.
- Grandío, Y. (1987): *Urbanismo y arquitectura ecléctica en San Sebastián (1890-1910)*, Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, Grupo Dr. Camino de Historia Donostiarra, Real Sociedad Bascongada de Amigos del País, Donostia.
- Kortadi Olano, E. (2009): *Guía de esculturas. Donostia-San Sebastián*, Monográficas Michelena, Donostia.
- Krauss, R. (1996): *La originalidad de la vanguardia y otros mitos modernos*, Alianza, Madril.

- Laborde, P. (1981): "Saint-Sebastien: le site et son utilisation", *Estudios de geografía: homenaje a Alfredo Floristán*, Príncipe de Viana, Iruñea, 245-250.
- Machimbarrena, J. (1950): *Urbanismo aplicado a San Sebastián*, Donostiako Udala, Donostia.
- Marchán Fiz, S. (1997): *Del arte objetual al arte de concepto*, Akal, Madril.
- Martínez, J. (1981): *La escultura en Guipúzcoa: breve introducción histórica*, San Telmo Museoa, Donostia.
- Mexia Carrillo, F. (1979): *El castillo de Santa Cruz de la Mota y las murallas de la Plaza de San Sebastián*, Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián, Grupo Dr. Camino de Historia Donostiarra, Donostia.
- Muñoz Echabeguren, F. (2004): *San Sebastián. La historia desconocida 1857-1966*, Txertoa, Donostia.
- , (2009): *San Sebastián, el monte Ulía y arenales, ayer y hoy*, Dr. Camino Institutua, Donostia.
- Orella Unzué, J. L. (1999): *Donostia-San Sebastián*, EDYFOAT, Bilbo.
- Peñalba, M. (2002): "Monumentos y esculturas en la vía pública. Donostia", *Ondare* (Arte Plastiko eta Monumentalen Saileko aldizkaria), Eusko Ikaskuntza/SEV, Donostia.
- Rodríguez-Sorondo, M<sup>a</sup> del C. (1985): *Arquitectura pública en la ciudad de San Sebastián (1813-1922)*, Sociedad Gupuzcoana de Ediciones y Publicaciones, Grupo Dr. Camino de Fustoria Donostiarra, Donostia.
- Sada, J. eta A. (1997): *Historia de San Sebastián*, Txertoa (4. argitaraldia), Nafarroa.
- Sagües Subijana, M. (1994): "Historia del Palacio Miramar", *Boletín de Estudios Históricos de San Sebastián*, Donostia, 255-300.
- , (2005): *Urgull. Historia de San Sebastián*, Hariadna, Donostiako Udala, Donostia.
- Sambricio, C. (ed.) (1991): *Donostiako alde zaharraren berreraikuntza/ La reconstrucción de la parte vieja de San Sebastián*, Donostiako Udala, Ekipamendu Handiak, Donostia.
- Sanz Esquide, J. A. (1995): *Real Club Náutico de San Sebastián, 1928-1929*, Colegio de Arquitectos de Almería, Almería.
- Schmalenbach, W. (1982): *Chillida en San Sebastián*, Kutxa, Donostia.
- Segura, F. "San sebastián escultural", *Diario Vasco*, 1995eko martxoaren 4a.
- Unzurrunzaga Goikoetxea, X. (ed.) (2000): *Ur ertzeko hiri bat. Hondarribia. Una ciudad frente al mar. A city facing the sea*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.

